

gaiak

armentia & prudentzio d.
jardunaldi feministak

QEU

2,40 €

2008ko apirila

183

artea

abtx08

jazzargia

mundua dantzan

kirola

xiba araba

kultura

trebiñu sagardotegia



MARTXELO OTAMENDI



Sartu ate guztiak irekitzen dizkizun prestakuntzan

LANERATZERA ETA
UNIBERTSITATERA



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

BATXILERGOA
L.H.ko ZIKLOAK

asteazken guztietan 18:00etatik aurrera
ARRIAGAn NIEVES CANOn
MOLINUEVOn eta MENDIZORROTZAn

jardunaldi irekiak

Aurre-inskripzioa egiteko
epearen aurreko asteetan



Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2008 - 2009 ikasturtea

	Derrigorrezko Hezkuntza		Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza		
	D.B.H.	LANBIDE HASTAPENA	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	A, B eta D ereduetan	Soldadurako Langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	- Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa - Ibilgailuen Elektromekanika	- Informatika Aplikazioen Garapena E-G - Informatika Sistemen Administrazioa - Produktu Elektronikoen Garapena - Automozioa - Industri Ekipoen Mantenimendua - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) - Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO		Merkataritza Laguntzailea	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduetan)	- Administrazio Kudeaketa E-G - Ile-Apalketa - Erizaintzaren Laguntza G	- Administrazio eta Finantzak E-G - Garraioaren Kudeaketa - Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G - Estetika - Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	A, B eta D ereduetan	Metal-arotzeriako langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	- Mekanizazioa E-G - Informatika Sistemen Ustiapena	- Mekanizazio Bidezko Produkzioa E-G - Proiektu Mekanikoen Garapena - Diagnosi Klinikoen Laborategia
MENDIZORROTZA				- Jatebete eta Tabernako Zerbitzuak - Sukaldaritza - Pastelgintza eta Okintza	G Gaeuzkoa E-G Egunezkoa eta gaeuzkoa E A eta D ereduetan eskaintzen diren Zikloak

- L.H.ko Elizbarrutiko Lanaren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILAren hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANBIDEren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Alava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GIZARTE EKINTZA
Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 183

geupertsonaia

martxelo otamendi 7-11

geugaia

armentia eta prudentzioren misterioak 14-16

batbitan

EHko IV. jardunaldi feministak 18-19

arte txokoa

abtx08 22-23

jazzargia egitasmoa 24-25

bathirutan

xiba araba 27-29

batbitan

mundua dantzan ekimena 30-31

batbitan

trebiñu sagardotegia 32-33

beste:


gaztezulo 20

literatura dosi txikitik 37

geusex 38

agenda, kaletik, idazleen zutabea, euskaltasunean,
iritzia, proposamenak, araba bixotzian,
historia zutabea, errezeta eta umorea

7-11



18-19



24-25




32-33



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naraia cuesta, ane pedruzo eta josune garcia de bikuña | azaleko argazkia: argazki press | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, karmele jaio, mikel ayerbe, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola eta gaztezulo. | publizitatea: idola breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | Ig: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

zereGINEUSKARAZ [apirila]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

apirilak 20, igandea
PAN PERDIDO (1.235 m.)
[aldea de portillo busto / burgos]
EGUN OSOKO irteera
irteera: loaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: kike (945140158)
geurekinmendira@gmail.com

KULTUR ERROTA

apirilak 22, asteartea
'LA TADRART' DIAPORAMA



migel anjel otsoa de alda gurrutxaga
eta imanól diaz de garaio esnaola
argazkilarí eta bidaiariek 'la tadrart'
diaporama dakarkigute parralera.
argelia, libia eta niger batzen dituen
mugazko eremu ezezagun bezain
liluragarria ezagutzeko aukera
eskainiko digute. argazkiek eta
iruzkinek, duna amaigabe eta pareta
izugarrien sorburu diren haitz
arrolak gertutik sentitzera eramango
gaituzte.
parral tabernan, 20:30

IRAKURLE KLUBA

apirilak 3, osteguna
GEORGE ORWELL, 1984,
TXALAPARTA 2007
apirilak 24, osteguna
HARKAITZ ZUBIRI, ZAKUR KALE,
SUSA 2007
maiatzak 29, osteguna
MAX FRISCH, HOMO FABER,
ELKARLANEAN 2001
hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com
geuelkartea@grn.es / 945222153

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ



montehermoso

MONTEHERMOSO KULTURUNEA. ERAKUSKETAK

asteazkenero, 19:30
(ez da beharrezkoa deitzea)
taldeak: asteartetik ostiralera, 18:00
(aurretik erreserba eginez)
945161830
HASERREAREN BEGIRADA.
maiatzaren 4ra arte
PASAHITZAK 3: feminitatea
eztabaidatu. maiatzaren 18ra
arte
www.montehermoso.net

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135
www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera
(jaiegunak barne), 11:00 / 12:00 /
13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net



ARTIUM

ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK

asteazken, larunbat eta
igandero, 11:30
doan. plaza mugatuak

TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK

derrigorrezkoa alde aurretik
erreserba egitea (73 euro)

FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

larunbat & igandeak, 12:30-13:15
5-11 urte bitarteko umeentzat,
helduek lagunduta
doan. plaza mugatuak

FAMILIENTZAKO JARDUERAK

larunbatak, 17:00-18:30
7-10 urte bitarteko haurrak, helduren
bat lagun
sarrera: 4 euro (helduak) / euro 1
(haurrak) [erdi prezioan kide
elkartuentzat]
toki mugatua

ARTIUM TXIKIA

igandeak, 12:15-13:30
3-5 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta

GOIZEAN ARTIUMEN

igandeak, 12:00-13:30
5-11 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta

info + erreserbak: 945209010
www.artium.org

TXIKIART

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

larunbatero, 18:00
nagusi & umeen arteko erakusketa-
tailerra
945161830
www.montehermoso.net

IPUIN EROTIKOEN 13. LEHIAKETA

epea: apirilak 21
info+: euskarabila (basauriko
euskara elkarteak)
euskarabila@topagunea.com



TXORIONAK!!

20 urte okupatzen 25 urte
komunikatzen
GAZTETXEA eta HALA BEDI
irratiauren urteurrenak
adi egitarauari
www.txorionak.org



LIBURUTEGI BIZIDUNAK

[gonbit-txartelak: dagokion gizarte
etxeko liburutegian, jarduera hasi
baino astebete lehenagotik]
www.vitoria-
gasteiz.org/bibliotecas

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

LITERATURA / HITZALDI ZIKLOA

apirilak 2

EIDER RODRIGUEZ

apirilak 16

UXUE ALBERDI

maiatzak 14

HARKAITZ CANO

antolatza.: eusko ikaskuntza
(hezkuntza eta literatura saila) &
upv/ehu (hizkuntzalaritza eta euskal
ikasketak saila)

gasteizko ehu-n, 10:30ean

Abt'08

ABTX'08

FINALA

apirilak 5, gasteizen, 17:00,

principal antzokian

arabako bertsozale elkarte.

945010505 / 675707971 /

araba@bertsozale.com

www.bertsozale.com

**KONTZERTUA**

IGOR ARZUAGA

MARA disko berriaren aurkezpena

apirilak 3, 20:00, GORATABERNAN

www.myspace.com/politburereco
rdingfiasco

**G.E.A., 'GASTEIZKO
EUSKARAREN
AGENDA' DIGITALA
jaso nahi?**

bidalguzu zure e-posta
geu@geugasteiz.com
helbidera eta hilero jasoko duzu.
gasteizko euskarazko ekintzen
bilduma da G..E.A.
ezinbestekoa
Gasteizen euskaraz
mugitzeko!

APIRILAK 21

'HARAGIAREN GEZURRAK,
GEZURREN HARAGIA'

mahai-ingurua

UXUE APAOLAZA & EIDER

RODRIGUEZ.

moderatzailea: iban zaldia

euskal ipuingintza berriari buruzko
solasaldia. beren liburuaren kritika
baikorrek jaso dituzten bi idazle gazteek
kontakizun laburraren ordezkaria ere baden iban
zaldiarekin hitz egingo dute. eider rodriguezek
'haragia' argitaratu berri du eta uxue apaolazaren
azken izenburua 'umeek gezurra esaten
dutenetik' izan zen.

laguntzailea: **GEU****APIRILAK 22**

JON ALONSO

'KOHERENTZIA LITERARIOA ETA
ITZULPENGINTZA'

eleberria, saiakera, ipuinak eta
itzulpena. bere azken liburu 'astrolabioa' dugu
hitzaldiaren oinarri; bertan bai idazleen bai
irakurlearen ikuspegitik literaturari birpasa egiten
dio. itzulpengintza eta euskal sistema editoriala
hitzaldiaren beste gaiak izango dira.

laguntzailea: **GEU****apirilak 16**

juan José millás

'las palabras'

azken hamarkadetakoa idazle espainiar
garrantzitsuenetarikoa bat. 'el dersorden de tu nombre', 'la
soledad era esto', eta 'dos mujeres en praga' eleberriek
ospetsu bihurtu zuten. ipuinak eta kazetaritza-lanak ere
argitaratu ditu. 2007ko planeta saria eskuratu zuen 'el
mundo' lanarekin.

apirilak 17

'literatura policiaca de hoy'

mahai-ingurua

raúl argemí & alejandro m. gallo

moderatzailea: javier otaola

raul argemí argentinarrak, besteak beste, dashiell hammett
saria eskuratu du, eta besteren artean 'siempre la misma
música' eta 'penúltimo nombre de guerra' eleberriak idatzi
ditu. alejandro m. gallo, ramalho inspektorearen aita
literarioa da ('la última fosa', esaterako).

apirilak 18

clara sánchez

1989an 'piedras preciosas' eleberriarekin hasi zen
argitaratzen. beranduago 'no es distinta la noche', 'desde
el mirador' edo 'últimas noticias del paraíso' etorri ziren,
azken honekin 2000ko alfaguara saria jaso zuen. duela
gutxi 'presentimientos' argitaratu du, ametsarako beste
bidaia bat.

apirilak 23

ajo+mastretta

'striptease cardiovascular'

nacho mastrettak, piano jotzailea, eta ajo mikropoetak
inprobisazioaz egindako ikuskizuna eskainiko digute, ironiaz
eta sarkasmoz beteriko poema zorrotzak eta laburrak
erabiliz.

BESTELAKO JARDUERAK**APIRILAK 18,19**

'historias para hombres y mujeres buenos'. kiku mistu konp.

ikusizuna itzal-txinatar teknikarekin antzeztutako narrazioen ohitura
zaharrean oinarritzen da. jaima arabiar barnealdean, alfonbra eta
kuxinetan eserita eta tradiziozko tea dastatzen, partaideek
milurtekotan ahoz aho kontatu diren istorioak gozatu ahalko dituzte.

12 urtetik gorakoentzat/gaueko saioak/prezioa: 2 euro/iraupena: 45-55'

apirilak 18, ostirala: 21:00; 22:30; 24:00

apirilak 19, larunbata: 21:00; 22:30; 24:00

sarreraren salmenta

goiuri jauregian: apirilak 14-17 (12:00-14:00/19:00-21:00)

plaza berriko jaiman (sarrerak egonez gero): apirilak 18, 19 (10:00-20:00)

biblio-chill

ezagutu nahi dituzu udal liburutegi publikoen sareko altxorrek
ekialdeko giropean? chill-out musikarekin girotutako liburutegia.
plaza berriko jaiman /sarrera doan

apirilak 18 eta 19, 11:00-20:00. dj eta te zerbitzua, 17:00-
20:00

APIRILAK 19**LIBURUEN SALMENTA ETA ERAKUSKETA**

arabako liburu-saltzaileak

plaza berrian, 10:00-21:00

APIRILAK 23**LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

4na liburuko 23 liburu-sortaren zozketa. apirilaren
14tik 21era bitartean, udaleko liburutegietan
egiten den mailegu bakoitzari zozketarako txartel
bat emango zaio. zozketa, apirilaren
23an, 19:00etan aldabe liburutegian.

APIRILA**LIBURUTEGI BIZIDUNAK**

'liburutegi bizidunak. apirila-ekaina' programaren
hasiera
gizarte etxeetako udal liburutegietan.

antolatza.: gasteizko udala & liburutegi sarea


GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
 Hedegile kalea (Korre), 14
 (San Migeleko pasabidea)
 Tf: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
 on egin!!! **jatetxea**
 bokatak,
 pintxoak, kazuelatxoak
 Aitzogile kalea (Kutxi), 33
 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa
SEX **PITILIN GORRI**
 Sexua euskaraz bizi
 GASTEIZ
 Tren geltokiaren ondoan
 Tel: 945 15 42 60
 DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
 Paper Bereziak
 Arte Ederretarako Materiala
 Ink Jet original en birziklatuak
 Bulego Materiala
 Enkoadernazioak
 Plastifikazioak
 Kopiak
 Kamiseten Estampaketak
azkarpint
 Inprimatua / Inprimategia
 Edozein inprimoketara.
 • PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eraman
 Argazki - Estudioa
 Heradio Fournier, 23
 (laborategia) 945 13 71 02
 Askatasun kalea, 5
 945 26 19 91


Bacalao Giraldo

 • Eguneko makailu gesaldia
 • Makailua eramateko prest
 • 36 errezeta ezberdin

 Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
 GASTEIZ
ERAMAN ETA JAN
 "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

El Clarete
jatetxea

 unai eta patxi fdr. de retana
 zerkabarren kalea, 18
 gasteiz 945 263 874



Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

BERRIA EGUNKARIAREN ZUZENDARIA

Martxelo Otamendi

***“Euskaigintza soziala
kriminalitatzatzeko saioa da”***

EGUNKARIA-REN AUZIA. 5 URTE

Amesgaizto batean murgildu gintuen Guardia Zibilaren operazio polizialak 2003ko otsailaren 20an. Iratzargailua galdu da nonbait; ez gara oraindik esnatu. Euskaldunon Egunkaria-ko langileek ez dute erraz ahanztziko egun hori. Halaber, euskarazko egunkari bakarra egunero irakurtzeko ohitura dutenek gogoan izango dute beti Egunkaria itxi zuteneko goiz hura. Ahaztea ez da helburua. Salatzea da egungo eginkizuna.

t. naroa cuesta

a. argazki press & artxibo

Euskalgintzatik sortutako ekimena da Euskaldunon Egunkaria. 75 eragilek jarri zuten abian 'Egunkaria sortzen' egitasmoa eta 1990eko abenduaren 6an sortu zen Egunkaria. Euskal prentsaren beharra ez zen berria, baina orduan lortu zen urtetan amestutakoa egia bihurtzea. Herriak sortutako proiektu hura Guardia Zibilak itxi zuenetik bost urte igaro dira dagoeneko.

Egunkariaren itxierari buruzko bi sumarioetako auzipetuak ahozko epaiketaren zain daude. Auzitegi Nazionaleko fiskalak Euskaldunon Egunkaria-ren itxieraren sumarioa, *auzi nagusia* deritzona, artxibatzeke eskaera egin du, hala ere, zazpi dira auzipetuak. Bestetik, ustezko irregulartasun ekonomikoei dagokien auzia dago, *auzi ekonomikoa*. Defentsak eta fiskalak argudiatu bezala, delitu ekonomikoei buruzko auzia ez dagokio Auzitegi Nazionalari, nolahi ere, zortzi lagun epaituko dituzte Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioak eskatuta. Hamabi auzipetu guztira. 181 urteko espetxe zigor eskaera orotara eta 235 milioi euroko isuna. Bost urte igaro badira ere, bidegabekeria hau salatzen dutenen ahotsak ez dira isildu. Ez dira isilduko.

Aurten bete beharko lituzke Martxelo Otamendik (Tolosa, 1957) hemeretzi urte Euskaldunon Egunkaria-ko zuzendari. Bidegabekeria batek moztu zuen Egunkaria-ren bidea bai, baina ez du lortu euskarazko eguneroko prentsa kioskotik desagerraraztea. Astean sei egunetan argitaratzen da Berria, Martxelo Otamendi zuzendari.

Bost urte joan dira jada Egunkaria itxi zutenetik. Pasarte ilun guztietan argi izpiak antzeman behar dira nonbait. Non aurkitu duzu momentu latzenetan indarra?

Jendearen indarrean. Egunkaria bezala jende askoren ilusioarekin sortu dira herri honetan proiektu asko. Batzuek izan dute dirua hasieratik, beste batzuek ez. Baina oro har denek izan dute atzean jende askoren ilusioa eta gogoa. Herri honek horrelako azpiegiturak behar zituela konbentzitutak zegoen jendea. Behar zituela ikastolak, behar zuela aek, behar zuela euskarazko telebista eta behar zituela herri aldizkariak. Konbentzimendu horren parte sentitzen zara eta Egunkariaren kasuan halako jipoia jaso ondoren jendearen animoak asko laguntzen du. Atzo bertan Bartzelonan nengoela Bartzelonako Maratoi handia ikusteko aukera izan nuen. Bukaeran gelditzen diren korrikalari horietako batek, edadeko gizon batek, ikusi ninduenean "Otamendi, gora Euskadi!" esan zuen. Atentzioa eman zidan. Anekdotak bat izan daiteke hau Katalunian baina gure herrian askotan gertatzen da. Bestetik, gurekin lanean ari den jendearen kalitatea, giza kalitatea, ezin daiteke ahaztu. 'Egunero' sortu zuten hurrengo egunean, Berria eta EKT gero. Euskalgintzako jendearena ere bai, noski. Faktore horiek guztiek ematen dute indarra lanean segitzeko.

Iruzur fiskaleko auzia ez dagokio Auzitegi Nazionalari, hala argudiatu dute defentsak eta fiskalak. Hala eta guztiz ere, Auzi Ekonomikoa bertan epaitzea erabaki du Juan del Olmo epaileak. Zer-nolako erantzuna eman daiteke horrelako jarrearen aurrean?

Lehenbiziz salatu. Fiskalak dio deliturik egotekotan hemen epaitu behar dela, Tolosako epaitegian edo Donostiako auzitegi probintzialean. Juan del Olmo epaile instruktorearen tema da Auzitegi Nazionalen epaitzea. Auzi horretan bi delitu biltzen dira: BEZaren iruzurra eta Eusko Jaurlaritzari emandako



salmenta datuak puztu izana diru laguntza handiagoak lortzeko. Bi delitu horiek ETArekin lotuta daudela uste du Del Olmok. Berak frogatu beharko du lotura hori non dagoen. Bi gauza frogatu behar ditu beraz, delituak badaudela eta egotekotan ETArekin lotuta daudela. Oraingoz epaileak ez du sekula horrelako ondoriorik demostratu bere konklusioetan.

"Itxieraren sumarioan ETakoak izatearen akusazioa badute, bigarren sumario ekonomikoan ere ETakoak dira. Beraz, egiten dituzten delitu guztiak, baita ekonomikoak ere, ETarekin lotuta daukatelako egiten dituzte". Hauxe da Del Olmoren iritzia. Aberrazio juridikoa da horrelako ondorioetara iristea.

Bestetik, itxieraren sumarioan Dignidad y Justicia eta AVT elkartearen herri akusazioaren eskaera besterik ez dago, hala ere, auzi biak daude ahozko epai-



2003ko otsailak 22. jende olde batek hartu zuen donostia manifestazio egunean

ketaren zain. Hartara, ba al dago babes juridikorako aukerarik?

Helegite guztiak galbi-dean dauzkagu eta sumario horretan epaituko gaituzte, ez daki-gu noiz baina epaituko gaituzte. Gerta liteke lehendabizi itxieraren auzia epaitzea eta gero ekonomikoa, edo alderantziz. Fiskalak itxieraren sumarioan esaten du ez dagoela motiborik epaiketa egiteko eta kasua artxibatu egin beharko litzatekeela. Hemerretzi orrialdeko txosten batean oso argudio sendoak ematen ditu, guk orain arte erabili ditugunak. Guretzat garrantzitsua da Fiskalaren jokabidea, nazioartean ate asko irekitzen ditu. Euskal herritarrek eta nazioarteko iritziak, publikoak alegia, egoera salatzea da



gelditzen zaigun aukera bakarra. Haiek esatea ez dagoela epaiketarekin aurrera jarraitzeko inongo motiborik. Gure lana hori zabaltzea da. Jendeari ikusaraztea zer gertatzen ari den hemen; bakarrik herri akusazioarekin posible dela horrelako gauzak gertatzea.

Euskalgintza osoaren kriminalizazioaren aurrean gaudela esan izan da. Ados al zaude? Hala bada, nola egin behar diogu aurre?

Azkeneko hilabete hauetan horixe izan da gure mezua. Egunkariaren kontrako kolpe hori ez zihoan bakarrik Egunkariaren kontra, elementu sinboliko bat izan zen

Euskaldunon Egunkaria. Segur aski Auzitegi Nazionalak, PPren alderdiak eta Guardia Zibilak bazituztela pentsatuta beste objektibo batzuk, 2003ko otsailaren 23ko manifestazio handi horrek geldiarazi zituenak. Ez da Egunkariaren kontrako jazarpen isolatua. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioak zabaltzen ari diren tesi oso bat dago. Euskalgintza soziala deritzona, alegia, administrazio publikoarena ez den euskalgintzaren jardutea, kriminalizatze saioa da honakoa. Garbi esaten dute haien tesian: euskararen alde egitea instituzioei dagokie, beraz, instituzioetatik kanpo egiten duten guztiek ETArekin ustezko lotura daukatelako egiten dute. Eta hori da, hain zuzen ere, euskalgintza sozialaren kriminalizazioa.

Espetxetik irten bezain laster salatu zenituen torturak. Gerora, gauza bera egin zuten Iñaki Uriak, Xabier Oleagak



eta Txema Auzmendik. Joan Mari Torrealdaik, aldiz, bost urteren buruan egin ditu tortura salaketak. Denbora behar al da horrelakoen inguruan hitz egiteko?

Bakoitzaren erritmoa da, bakoitzaren psikearen arabera. Jende askok esan digure tortura salaketak entzun eta gero haiek animatu direla haiena egitera. Kate bat izaten da, prozesu bat. Tortura salaketa horiek modu independente batez ikertu behar dira eta kondenatu behar direnak kondenatu, eta kitto.

Zoritarrez ez zarete lehenak izan torturak salatzen, ezta azkenak ere. Hala ere, zuen salaketek beste askorenek baino oihartzun handiagoa izan zuten. Iritzi publikoan eragiteko ezin da aukerarik galdu, ezta?

Emakume batek esan zidan behin bere alaba torturatu zutela, sentitzen zuela guri gertatutakoa baina bazela garaia jende ezaguna torturatzeko. "Zuena ezagutu eta gero nire alabaren tortura salaketak sinetsi ez dituzten batzuk hasiko dira sinesten", esan zidan.

Lehenengo hiru egunetan torturatu ninduten, laugarren eta bosgarren egunetan bakean utzi ninduten. Orduan pentsatu nuen "hau salatu beharra daukat", ordura arte esandakoarekin eta argitaratutakoarekin kontsekuente izateko. Baina ez genuen espero horrelako oihartzuna izango zutenik, sekulako oihartzuna izan zuten. Euskal Herriatik kanpo ere ikaragarria izan zen,

oraindik ere badatoz komunikabideak tarteka hori entzutera.

Asko dira Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera salatzen jarraitzen dutenak. Izan ere, itxieraren bigarren urteurrenean Egunkariaren Aldeko Babes Elkartea sortu zen. Inoiz baino gehiago behar al duzue orain babes hori, herriaren babesa?

Bai. Oso garrantzitsua izan zen otsailaren 23ko manifestazio hura; oso garrantzitsuak izan ziren ondoren sortu ziren elkartasun batzordeak eta sindikatuek antolatutako elkartasun ekimenak; herri batean eta beste antolatutako hitzaldi eta mahainguruak, kamiseta saltzeak... Kanpaina hura guztia herri erantzun oso interesgarria izan zen, eta uste dut eredu garria dela Europan. Bide horretatik, bakarrik lor dezakegu epaileei ikusaraztea Egunkaria-ren itxiera bidegabekeria izan zela, injustifikatua. Epaiketa horretan kondenak ematea bidegabekeria horren beste urrats bat izango litzateke. Garaiz bukatu behar da horrekin.

Itxieraren bosgarren urteurrenean mobilizazioak ugariak izan dira Euskal Herrian zehar. Aukeratutako leloa 'Egunkaria libre', zer adierazi nahian?

Libre, Egunkariak libre izan behar du. Egunkariak berak egon behar du libre, mantxetarik egon behar du libre eta Egunkaria-ko auzipetuok libre egon behar dugu. Gainera esaldia oso polita da, "munduan libre bizi ahal izateko EGUNKARIA libre munduan

bizi ahal izateko", Koldo Izagirreraren oso espresio polita da. Mezu oso bat da, filosofia oso bat da. Egunkariak berak egon behar du libre eta Egunkaria-ko auzipetuok ere.

Euskaldunon Egunkaria itxi zuten, baina ez zuten isildu. Otsailaren 21ean Egunero kalean zegoen. Gero Berria proiektuari ekin zenioten. Gertatutakoaren ostean, ez al du nolabaiteko beldurra ematen egitasmo berri bati aurre egiteak?

Bai, baina herri honetan horretan gabiltza azkeneko hogeita hamar urteotan. Ikastolak sortu zituztenak ere horretan zebiltzan. Gure herriko ikastolan, Tolosan, Guardia Zibilaren "dos caballos" bat joaten zen atarira eta gurasoen kotxeen matrikulak apuntatzen zituzten. Haiek egin zuten lan hura eta zailtasun horiek gainditu zituzten. Guk orain bestelako zailtasunak ditugu, judizialak eta polizialak, eta bi aukera herri moduan. Batetik, etsi eta amen esan. Bestetik, herri bat garela eta gure kultura, gure hizkuntza, gure nortasuna garatzeko eskubidea daukagula esatea, eta argi uztea garatzen segituko dugula oztopo horien guztien gainetik. Nik uste dut bide bakarra hori dela, lanean segitzea eta ahalik eta laguntza handiena lortzea, gure herrian eta gure herriatik kanpo.

Berria egitasmo finkatua da gaur. Zeintzuk dira euskal prentsaren erronka berriak?

Bezero berriak eta gehiago lortzea. Hiru



liburuaren azala



2003ko martxoak 13. egunkariaren aldeko gasteizko ekimena



milioi euskal herritar gara, zortziehun milak esaten dute badakitela euskaraz, eta horietatik gaitasun linguistikoa eta konpetentzia linguistiko "normala" hirurehun eta berrogeita hamar mila inguruk dute. Beraz, asko dira oraindik euskarazko prentsa kontsumitzen ez dutenak. Ahalegin bat egin beharko genuke horiek euskarazko prentsara hurbiltzeko. Gero, euskaldun berri izan baina euskaraz irakurtzeko zailtasunak dauzkaten horiei ere erraztu beharko genieke bidea gurera etortzeko. Euskarazko prentsaren erronka nagusia, alde batetik, orain arte euskarazko produktuak kontsumitu ez dituztenak euskarazko produktuak kontsumitzera animatzea, eta bestetik, etorkizunerako produktu berriak sortzea da. Etorkizuna aurreikusi behar dugu, produktu berriak asmatu behar ditugu, kalitatezkoak.. Ikusi behar dugu bost edo hamar urte barru gizarteak zer eskatu duen eta horiek prestatzen joan.

"Euskaldun guztion egunkaria izan behar luke -eta ez da- haren ondorengoak... kanpoan utzi baititu ezker abertzalearen sektore ofizialenarekin bat ez datozenak". Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarri-karen hitzak dira hauek. Zer deritzozu?

EK Tk erantzun zuen erantzun behar zuen bezala, oso modu egokian eta sendoan gainera ■



txema auzmendi eta joan mari torrealdai

martxel ootamendi



bat-batean:

Zein da egunkari baten zuzendariaren lana?

Orkestran jotzen duten musikari guztiek harmoniaz jotzea.

Biharko albiste nagusia aukeratzeko ahalmena izango bazenu, zein?

Euskal Herriko gatazkaren inguruan konponbide sendoa eta luzarokoa erdietsi dutela parte inplikatuak eta aro berri bat irekitzen zaiola herri honi.

Zenbatu al dituzu azkeneko bost urteetan erantzundako elkarrizketak?

Ez. Baina lehengoan esan nion bati hegazkina igual ehun aldiz baino gehiagotan hartu dudala azkeneko bost urteotan.

Sukaldean ondo moldatzen zarela badakigu... janari bat?

Urtero dauzkate bi zita inportante etxean: nire urtebetetzea eta urte berria. Halakoetan saiatzen naiz plater berriak asmatzen, eta nire erronka hori da. Aurtengo plateretako bat hau izan da: piña xerra azpian, gainean arkume haragiarekin egindako pasteltxo moldeatu bat (belar askorekin landutako pastela) eta ondoan sepia kolore eta zaporeko pasta italiarra kiwi karamelizatuarekin.

Euskal Herriko lekuri ederrena?

Askok daude. Hala ere, ni hirizalea naiz, ez naiz oso mendizalea.

Gasteiz gustuko duzu?

Bai. Alde zaharrean orain oso bizipenezkoa da dena, bizitza desberdin asko garatzen ari dira azkeneko urte hauetan. Hor dauden fusio sozial eta kulturalak herri moderno eta integratzailea garelako demostratzeko aukera polita dira.

Nola ikasi zenuen euskara?

Etxean, nire gurasoekin. Nire aita oso temetua zegoen horretan. Ni erdal eskolen garaikoa naiz eta etxean erdaraz hitz egiten genuen anai-arreben artean. Aitak harrapatzen bagintuen erdaraz hitz egiten ez zigun pagarik ematen igandean. Gero hamasei urterekin kontzientzia pixka bat hartu nuenean gau eskolara joan nintzen. Bizpahiru urte segidan oso azkar egin eta bat-batean pasa nintzen EGAKo klaseak ematera. Etxetik neramana berehala berreskuratu nuen.

IRAKURZALETASUNA

Dirudienez gero eta pertsona gutxiago dira bere denbora libre irakurtzeko erabiltzen dutenak, eta estatistikek diotenaren arabera, Espainiar Estatuan Europan baino gutxiago irakurri ohi da. Kalera atera gara arabarrok zenbat irakurtzen dugun jakiteko asmoz.

t./a. josune garcia de bikuña

1. Irakurzalea al zara?
2. Zergatik?
3. Ze liburu ari zara irakurtzen?



Myrto Sarri, ikaslea

1. Bai.
2. Bakardadeari aurre egiteko balio dute liburuek.
3. Orhan Pamouk idazlearen liburua, Istanbulen kokatzen dena.



Harkaitz Gonzalez, biltegizaina

1. Bai, baina ez asko.
2. Liburuak informazio iturri direlako eta hauei esker kulturalki eta ideologikoki ikuspuntu desberdinak ikus daitezkeelako.
3. George Steer kazetariaren biografia.



Lucia Iñigo, ikaslea

1. Azkenaldian ez dut irakurtzeko denborarik izan baina gustatzen zait.
2. Denbora modu entretenigarri batean pasatzeko tresna direlako.
3. 'Cosmética del enemigo' liburua.

idazle zutabea

UDABERRIAREN USAINA

t. karmele jaio



Sudur zuloetatik sartzen zaigun usain berezia da udaberria. Ikusi edo azalean nabaritu baino gehiago, usaindu egiten da. Eta duen usain bereziak burua nahasten digu, negu osoan

buruan ordenaturik eduki ditugun ideiak aire bolada epel batek hegan jartzen dituelako. Leiho batetik behera botatako orri zuriak balira bezala dantzan jartzen dira gure pentsamenduak, vals baten erritmoa jarraituz.

Udaberria usaintzen dudanean neskatoa nintzeneko garaia gogoratzen dut. Ikastolara joateko hartzen genuen autobuseko leihotik eguzkia sartzen da. Izerditan nago, oraindik neguko berokia jantzita dudalako. Plastiko usaina hartzen dut, eguzkiak plastikozko eserlekuan jotzen duelako bete-betean. Larre berdeak ikusten ditut kanpoan eta belarra okertu eta mugitzen duen hego haizea usaintzeko gogoia dut, baina ezinezkoa zait autobusaren barruan. Plastiko beroaren usaina hartzen dut bakarrrik eta itota sentitzen naiz. Berokia kendu, ikastolako liburuak airean bota eta autobusetik irteteko gogoia dut, larre berdean etzan eta zeruari begira geratzeko.

Udaberriaren usaina deskribatu beharko banu esango nuke batzuetan ogi egin berriaren usaina hartzen diodala, edo agian hobeto, esne-opil egin berrien usaina. Beste batzuetan balkoi batean zintzilik dauden izara garbien usaina hartzen diot, eta haurtxoen buruek izaten duten usaina gogorarazi dit udaberriak.

Udaberria heltzean, begiak itxi eta sakon hartzen dut arnasa, usaina sabelean gorde nahiko banu bezala. Eta orduan nire burua imajinatzen dut larre berde batean etzanda, zerura begira. Eta nire buruko ideiak ezin harrapatuta ibiltzen naiz, leiho batetik behera botatako orri zuriak balira bezala. Vals baten erritmora ari dira dantzan ■

MIREN LOPEZ DE ARREGI LAKUNTZA

Amak txikitatik erakutsi zion euskaraz hitz egiten hogeita zazpi urteko neska gasteiztar honi, eta bere ahizparen eta familiaren laguntza ere jaso zuen. Gaur egun sexologo gisa lan egiten du ikastetxeetan, unibertsitatean, emakumeen taldeetan, begirale taldeetan, gurasoekin eta abar.



t. josune garcia de bikuña a. edorta sanz

Nola ikusten duzu zure burua?

Eboluzioan, bizitza osoa eboluzioan. Burua gero eta beteago, baita ipurdia ere!, kar-kar. Pozik nago oro har nire buruarekin. Egun txarrak badituzte (egunak bainoago, momentuak), baina nahiko pertsona baikorra naiz.

Zein da zure biziorik handiena?

Ez dakit bizioa den, baina bai behar bat niretzat: musika. Melomanoa naiz. Noizean behin kontzertu batera joatea ere behar dut, terapia moduko bat da niretzat. Beste behar bat ere badut: mimoak behar ditut zoriontsu bizitzeko.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gizartean ditugun injustiziek eta hauekin jolasten duten politikariek.

NOIZEAN BEHIN KON- TZERTU BATERA JOATEA TERAPIA MODUKO BAT DA NIRETZAT

Informazioa jasotzeko egunkaria, telebista ala irrati?

Ba, egia esan, hirurak erabiltzen ditut. Goiz gehienetan Hala Bedi Irratian 'Suelta la olla' irratsaioa entzuten dut; eguerdietan bazkalatzen nagoela, telebista jarri ohi dut, zappin-

ga egiten dut interesa dudana albisteren bat topatu arte. Egunkaria ez egunero, baina asteburutan edo taberna batean zain nagoela gustuko dut irakurtzea.

BADAGO UNE GUZTIETA- RAKO MUSIKA EGOKIA... MOGWAI TALDEARI ZOR DIOT KARRERA BUKATU IZANA

Beldurrik?

Bakardadeari. Gustatzen zait noizean behin bakarrik egotea, lasai nire buruarekin, baina nik erabakitzen dudanean!

Oporrak non eta zertarako?

Denboraldiaren arabera. Nekatuta nagoenean, bero egiten duen hondartza batean, zoragarri. Gogoko dut oporrak leku, kultura, bizimodu desberdinak ezagutzeko erabiltzea ere, oso interesgarria iruditzen zait.

Nora ez zinakete joango?

Nik uste edonora joango nintzatekeela.

Eguna ala gaua?

Mmm... zaila da aukeratzen. Biak ditut gustuko. Eguzkia maite dut, baita ilargia ere.

Janari bat?

Arrautza patata frijituekin.

Eta edari bat?

Edari asko. Eguna hasteko, laranja zukua eta

te beltza esne apur batekin. Egunean zehar, ura. Pintxo bat jateko, ardoa. Poteatzeko, garagardoa. Manborako, rona kolarekin.

Zer da Gasteizek duen onena?

Alde Zaharra. Ikaragarri atsegin dut, txoko magikoak ditu. Bestetik, hemen dagoen giroa.

Eta txarrena?

Gero eta lehenago itxi behar dituztela tabernak.

BIDAIATZEN ASKO IKAS DAITEKE ETA IKUSPEGIA HANDITZEKO AUKERA EMATEN DU

Iragana, eguna ala etorkizuna?

Iraganak egiten nau, eguna da bizi dudana, eta etorkizunarekin amets egiten dut. Baina erreala den bakarra gaurko eguna da.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Nik ezin dut, nire inguruko batzuek ez dakitelako. Alde batetik, pena ematen dit, baina bestetik ez, ze pertsona hauek nire inguruan nahi ditut euskaldunak izan ala ez.

GEU elkartearen eta aldizkariaren berri-rik? Noiztik?

Aldizkaria institutuan nenbilenetik ezagutzen dut eta orain elkarrekin antolatzen dituen ekintzak ere e-mailez jasotzen ditut

ARMENTIA ETA PRUDENTZIOREN MISTERIOAK

Apirilaren 28an Armentia zelaia jendez beteko dira berriz, herri guztia egun batez erromeria bilakatuz. Baina egun horretan zapaltzen dugun lurraren azpian mendetako historia eta sekretuak gordetako daude. Armentia Prudentzioren bizitza bera ere argilunez beterik dago. Hauetako misterio batzuk azaleratzen saiatuko gara erreportaje honetan.

t. kike fdz de pinedo **a.** edorta sanz,
karlos fdz de betoño & kike fdz de pinedo

Armentia

Lehenengo aipamena 1025 urtekoa da, Donemiliaga Kukula monasterioari emaniko "rejak" zehazten dituen agirian jaso. Bertan *Malizhaeza* barrutian, besteen artean *Çastehiz*, *Lassarte*, *Armenter* herriek hiruna ordaintzen dituzte (segurua ez bada ere, ohiko kalkuluaren arabera 30 etxe inguru). Armentia basoan, baserri bat baino ez geratzen den lekuan *Çazaheta* (gatza lekua) herriak, aldiz, bakarra.

Izenaren hainbat aldaera ezagutu dira:

1050ean *Armenti*, 1062an *Armendehi*, 1085ean *Armentegui*, 1135ean *Armentia*... Eta inguruko bideen izenetan: *Armentegibidea* (1532), *Armendegibidea* (1572), *Armendibidea* (1670, 1927), *Armentibidea* (1819, 1927).

Bidegurutze historikoa

Ez dira Erdi Arokoak aztarnarik zaharrenak, erromatar garaiko estela bat eta zenbait aztarna lekuko. Izan ere, *Mariturriko* indusketetan ikusi den moduan bidegurutze garrantzitsua izan da betidanik. Bertan Astorga-Burdeos kalezada erromatarrek eta beste bigarren mailako bideek bat egiten zuten. Beranduago,

Erdi Aroan, San Adrian tuneletik zetorren Done Jakue bidearen galekua ere bazen.

Apezpikutegitik San Prudentzio elizara

IX. mendetik 1087 urtera arte Apezpikutegi izan zen. Urte horietan hainbat apezpikuren berri badugu, harik eta 1087 urtean Fortunio-
ren heriotzarekin batera Kalagorriko elizbarrutira pasatuko den arte. 200 urte horietan Araba "nuklearraz" gain Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat eskualde zituen bere gain. Gero kolegiata bihurtuta, Gasteizko foruan agertzen den '*Armentiensis episcopus*' titulupeko Rodrigo de Cascantek eliza erromanikoa eraiki zuen elizatari ikusgarriarekin.



1776an hainbat eraberritzeren ondorioz hartu zuen oraingo forma, egitura originalaren kalteetan. Izena ere aldatu zioten 1970ean, San Andres aldatuz San Prudentzioren mesedetan.

Armentia ezusteak

Egin berri diren bi indusketek datu berriak eskaini dizkigute. Batetik, Azkarateren gidaritzapean eliza ingurua arakatu dute bere errealitate historikoa hobeto ezagutzeko asmoz. Zoritxarrez, babes ekonomikoa kentzearen ondorioz ezin izan dituzte lanak bukatu. Katedrala zaharra ez omen dute topatu, baina bai ustekabe interesgarriak.

1. Sakrarioa?

Indusketa lanak hasi eta gutxira aurreneko ustekabea hartu zuten eliza inguratzen zuen zirkulu baten itxurako zuloa topatu zutenean. Ikertu ahala konturatu ziren Europako hainbat lekutan ohikoa den, baina Penintsulan Katalunian baino ez agertu den "sakrario" bat izan zitekeela. Zirkulu hauek Erdi Aroan balio sinboliko handia zuten eta bere barrua juridikoki sakratua eta ezin bortxatuzko lekua zen, edozein biolentziatik salbu, hortaz. Baina ikertzen ari zirela horren bigarren zirkuluzuloa eta hirugarren bat ez zirkularra aurkitu

zituzten. Honek zaildu eta korapilatu du hasierako hipotesia. Zer ote da? Argituko ahal digute!

2. Erdi Aroko hilerri harrigarria

Lurra zulatzen hasi eta berehala, gure inguruko eliza gehienetan bezalaxe, hezurrak eta hilobiak pilatzen hasi ziren. Honaino normala. Baina baziren bi gauza ohikoak ez zirenak: gorpuen kopurua, XII-XIV. mendeetako 150 bat; eta batzuen trepanazioak edo hezur-ebakuntzak. Laborategian aztertuta txundituta gelditu ziren emaitzekin. Gutxienez, 15 gorpu zauri larriak izan eta gero operatuak izan ziren eta onik atera ziren kasu batean izan ezik. Datu honek Erdi Aroko hilerririk garrantzitsuen bihurtzen du Armentiakoa. Harrigarria baita onik operatutako hainbeste gorpu aurkitzea. Beste bi ondorio atera dira: batetik, zauritutako hezurak bertan bizi ziren soldaduek izan daitezke; eta bestetik, erabilitako teknikak erakusten duten moduan, uste zen baino garapen tekniko, sozial eta ekonomikoa handiagoa izango zutela, mediku eta guzti.

3. Mariturri

Aurkikuntza hau ez dago eliza inguruan baina bai 100-200 bat metrora. Bertan J. Nuñez eta P. Saenz de Urturi arkeologoek bidegurutze funtzio zuen geltoki-herrixka bat aurkitu dute. Honekin batera, jatorrizko kaltetada erromatarren arrastoak, posta-geltokia zaldi eta idien arrastoeekin, hainbat etxe, terma itxurako eraikuntza bat, jainko bati eskainitako aldarea eta behi-etxalde bat, hots, latinezko *armentum*. Itxuraz, izen honetatik zetorkeen Armentia izena. Bestalde, lekuari izena ematen dion iturri bat ere badago: **Mari**-euskal mitologiako jainkosa nagusia- eta **iturri** hitzekin osatua. Ez da arraroa zenbait iturri eta iturburutan mari, andre, sorgin edo lamiak aurkitzea: *Mariiturri* (Aranako Donebikendi), *Lamiturri* (Betolatza), *Andraiturri* (Aguraingo harresiaren atean 1564an), *Sorginiturria* (Etxabarri-Ibiña 1722an, gaur *La fuente de las brujas*). Areago, gure kasuan bezala, antzinako aztarnek ukitu misterioetsua ematen badiote, ondoko **Andresolo** lur sailak baieztatzen digunez.



Armentia Erdi Aroko hilerria



Trepanazio bat



Mariturri





JAUN PRUDENTZIO DEUNAREN GORABEHERAK

Santuen bizitza kontatzen diguten hagiografiak ugariak dira Erdi Aroaz geroztik. Kontaketa hauetan zehaztasun historikoa bainoago, fededun eta jainkozaleentzat pizgarri izatea bilatzen da. Santuaren bertuteak eta mirakuluak tartekatzen dira gertaera asmatuak eta historikoak nahastuz. Honela, duela gutxi jakin da nafarren San Fermin famatuak ez duela inongo oinarri historikorik eta bere ibilerak Nafarroan asmatuak izan zirela. Prudentzioren kasuan bada ere santuaren existentzia bera ukatu duenik, baina oro har, bere izaera onartzen da tarte ilunak eta dudazkoak baditu ere. Noiz jaio zen ere ez dago garbi; iturri gehienek arabera VII. mendekoa da, baina Nora Igartua historialariak VIII eta X. mendeetako tartea hobesten du. Hagiografiak honela laburtu ohi du bere bizitza: *Armentia herrian jaio omen zen. 15 urte zituela herria utzi eta bere erlijio bideari ekin zion. Bi egunetan Soria ondoko koba batean bizi zen Saturio anakoretarengana iritsi omen zen. Duero ibaia busti gabe zeharkatu eta gero. Han bizitza eremitikoa eramango dute 7 urtez, harik eta Saturio hilko den arte (Bilibioko kobako San Felices eta San Millan eremitekin pareka daiteke). Gero kristautasuna zabaldu eta predikatzerara abiatuko da, lehendabizi Kalagorriara, gero Tarazonara, hango apezpiku bilakatu. Bere azken egunak bake lanetan Burgo de Osman igaro zituen. Gorpu bere mando gainean jarri eta gelditu zen lekuan. Clavijo ondoko Laturce mendiko kobazulo batean lurperatu omen zuten. Hemen San Prudencio monasterioa eta mendetan santuaren gurtza egin izan zen. Honaino kondaira, errealitatea eta mirarizko gertaerak nahastuta. Kontuak kontu badakigu Gasteizen 1483 urtetik gorde beharreko jaia dela, eta Arabako Batzar Nagusiek XVII. mendean Arabako zaindari izendatu zutela.*

DANBORRADA: OHITURA BERRIA BEZAIN ARRAKASTATSUA

Araia izan zen Araban lehena danborrada bat sortzen 1921 urtean Aitzbarren elkartearen eskutik. Honi 1971n Aguraingoak emango dio segida, gainera Euskal Herriko emakumez osatutako aurrenekoa bilakatu. Gasteizen, berriz, hiru urte beranduago sortuko zen ideia. Ametza elkartearen inaugurazio-afalostean kantuka eta bestela berotu eta Donostiako martxa jo eta gero batek bota omen zuten: eta zergatik ez sortu elkarteen danborrada bat Prudentzio deunaren jaietan? Esan eta egin. Handik gutxira 13 elkarte gastronomiko biltzen hasi. Diputazioaren babesla lortu eta 9 bilera egin eta gero dena prest zuten. Donostian alokatutako jantziekin kaleratu ziren bi taldetan banatuta: Aguraingo danborradakoak, 100 lagunekin; eta Gasteizko elkarreetakoak, 150ekin. Arrakasta erabatekoa da. 1975 urtea zen, gizartea lozorro beltzetik esnatzen ari zen festa-gosea eta kalea berreskuratzeko gogoia handia zen. Ordutik, 1976ko martxoaren 3ko sarraskiaren urtean kenduta, Prudentzio deunaren egunaren bezpera danbor hotsez betetzen zaigu. Alta, ez dira hauek entzuten diren soinu bakarrak. Ordu batzuk lehenago, arratsaldeko 8etan erretretak hasiera emango dio jaiari. Tronpetak eta atabalak bost aldiz joko dute Udaletxeko balkoitik aurrea, eta Diputaziokotik ondoren. Gasteizko harresiak ixteko orduan entzuten zen toke militar gaurkotua omen da musika honen jatorria. Ostean, danborren, barraskilo eta perretxikoen txanda... On dagizuela! ■





MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33
Gasteiz



- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goiaín Industrialdea
Tl/fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



**eusko
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



**Gazte
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Iturrieta Sagardotegia



AZKEN DENBORAK DIA

ostegunetik
igandera
irekita

gainontzeko
egunetan
erreserbarekin

Hramaio. Erraga auzoa, z/g
Tl.: 945 445 385



★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073



FEMINISTOK ERALDAKETARAKO BORROKAN



14 urte itxaron behar izan da Euskal Herriko IV. Jardunaldi feministetan parte hartzeko aukera izateko. Izan ere, azkenik Portugaleteko EHUko Nautika fakultatea izango da emakume feministen elkargune eta iritzi trukaketetarako lekua. Apirilaren 11n, hasiko dira jardunaldiak eta igandean, Apirilaren 13an, bazkalostean amaituko dira.

t. ainhua arriaga **a.** edorta sanz

Emakume guztiak daude gonbidatuta Emakume Feministen Koordinadorak antolatutako topaketa hauetara. 1977ko lehen jardunaldi horien arrakasta lortzeko bidean lanean dabilta koordinadorako beste elkarrekin batera, hurrenez hurren, Bilgune Feministako eta Arabako Emakume Asanbladako kide diren Maider Goikoetxea eta Eli Etxeberria. Euren egoitzetako ateak gustura zabaltu dizkigute jardunaldien nondik norakoak gurekin partekatzeko.



ELI ETXEBERRIA ETA MAIDER GOIKOETXEA

“Harreman sare berriak sortu

Zer aldatu da lehen jardunaldi feminista horietatik apirilean egingo direnetara?

Lehenengoan asanbladak eta erakundeak sortu ziren. Kontuan hartu behar da urte hori izan zela Euskal Herrian mugimendu feminista sortu zen urtea. Hortik aurrera hasi zen mugimendu feminista indartsu eta antolatua. Guztien oinarria, emakumeok elkartu eta iritziak trukatzeko gune bat sortzea. Azkenean inoiz ez ditugulako horrelako guneak, non bakarrik emakumeok hitz egin dezakegun. Guztien helburua hori zen, baina gero jardunaldi bakoitzak zegokion egoerari ere erantzuten zion. Oraingo jardunaldiek duten beste xede oso garrantzitsua itunak sortzea da. Zenbait borroka berdin eramaten ditugu talde askok eta baturik indar gehiago egin genezake.

Aurtengo jardunaldi feministetan hiru ardatz nagusiren inguruan lan egingo da. Zer iradokitzen dizue gai bakoitzak eta zergatik iruditzen zaizue garrantzitsua hauen gainean lan egitea?

1. EMAKUMEOK HERRIAN ETA MUNDUAN: zaintza, prekarietatea, interkulturalitatea, parte-hartze soziopolitikoa...

Maider: Niri gai honek iradokitzen didana da, azken finean emakumeen arteko sare bat sortu behar dugula. Herrian, Euskal Herrian eta azkenean munduan, bakoitza era desberdinean baina emakumeengan eragina duten gai komunak egon badaude, prekarietatea kasu.

Eli: Niri iradokitzen didana da emakumeak ez garela zerbait homogeneoa eta gure baitan desberdintzen gaituzten arloak daudela: adina,

autobusak antolatuko dira gasteiztik



**JARDUNALDIEK DUTEN
BESTE XEDE OSO
GARRANTZITSUA ITU-
NAK SORTZEA DA**

**BERDINTASUN FALTSU
BATEAN HEZITUAK
GARA EGUN**

**PONENTEAK GU GEU
IZATEA ERABAKI
DUGU, GU ERE BAGARA
TEORIEN SORTZAILE
ETA GAINERA PRAKTI-
KATIK GATOZ**

behar dira, harreman hierarkikoak apurtuz”

jatorria, lan egoera... Baina, dena den, beti izango dugu zerbait komunean eta horri erantzunez planteatu dugu lehenengo ardatza.

2. EMAKUMEOK INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGINEZ: prebentzioa, legeak, erantzuna...

Eli: Indarkeria hau mantentzeko jendartea nola dagoen antolatuta ere aztertuko dugu. Hori da guk apurtu nahi duguna eta noski hau apurtzeko sistema patriarkala apurtu beharra dago. Adibidez, Arabako Asanbladatik autodefensa tailerra antolatuko da. Ikastaro hauek finean, mugimendu feministaren patrimonioak direlakoan gaude. Guk norberaren autoestima zaintzea eta garatzea landuko dugu, indarkeriaren aurrean nola jokatu jakiteko. Helburua barruko segurtasuna aurkitzea da.

Maidar: Gu prebentzioan eta erantzunean zentratuko gara gehiago. Hemen oso garrantzitsua ikusten duguna, aliantza lortzea da, eta batez ere prebentzioa landu beharrean gaude. Jaiotzen garenetik landu behar ko litzateke hau, izan ere, harreman sare berriak sortu behar baitira, harreman hierarkikoekin apurtzea lortuko duten harremanak, alegia.

3. EMAKUMEOK, GURE IDENTITATEAK ETA GURE GORPUTZ INTSUMITUAK: sexualitatea; queer; prostituzioa; eskubide erreproduktiboak: abortua, eskubide sexualak, lesbianismoa...

Maidar: Niri izugarri ikasiko dudala iradokitzen dit. Ezjakintasun handia daukat honen inguruan.

Eli: Batez ere gure gorputza nola erabiltzen den aztertzea izango da kontua, generoa eta sexua eraikita egoteaz arituko gara. Emakumea iza-

tea zer den eta zer ez den eta zergatik izan behar den horrela eta nondik datorren hori... aztertuko da. Bestalde honi ere buelta ematen zaio, eta dikotomiak apurtzera jotzen da (emakumea/gizona; kultura/natura). Nik ere asko ikasiko dut, ez pentsa! Oso ponentzia polemikoak izango direlakoan gaude, apurtzaileak baitira, transgresoreak. Bestalde, identitateaz ere arituko gara, zer den, nondik sortzen den, nola, zergatik... Esaterako emakume bizardun bat zer da, emakumea ala gizona? Edo zergatik izan behar du emakumea ala gizona? Agian beste zerbait da...

Ponentziak antolatzaileen esku geratuko dira, ez?

Bai, hala da. Hala ere, koordinadora feministan ez gaude Euskal Herriko talde feminista guztiak eta horregatik, epe bat egon zen zabalik emakumeen elkarte desberdinek euren ponentzia aurkezteko. Ponenteak gu geu izatea erabaki dugu, uste dugulako gure artean badaudela gauza interesgarriak esateko eta ez dugula izen handiko norbait ekarri beharrik honi buruz hitz egiteko. Gu ere bagara teorioren sortzaile eta gainera praktikatik gatoz.

Bi egun eta erdiko jardunaldiak dira, ezta?

Bai, beno, azkenean egun bat gehitu eta ostiralean hasiko dira. Feminismoaren arazo handienetako bat borrokan emakume gazteen falta da. Adin jauzia handia da, berdintasun faltsu batean hezitutaik bai-kara egun. Horregatik, emakume gazte feministon asanblada egingo da ostiralean, apirilaren 11n arratsaldean, Bilboko Kukutxa Gaztetxean. Bestalde, aipatu nahiko genuke, larunbatean (apirilak 12) manifestazioa antolatuko dugula Bilbon, 20:00etan. Jardunaldien leloa izango da manifestazioarena ere: 'Feministok eraldaketarako borrokan'. Honen ostean, jaialditxo bat egongo da Kukutxa Gaztetxean■

BIDEOAK (IRRATI IZARRA HIL ETA) ZUZENDARIA SORTU ZUEN

TESTUA: GONTZAL AGOTE

HASIERAN, MUSIKARIA IZAN ZEN MICHEL GONDYR. 1963AN JAIOTAKO FRANTZIAR HAU OUI OUI TALDEAN ARITZEN ZEN BATERIA JOTZEN, ETA HAIENTZAT BIDEO MUSIKALAK EGITEN HASI ZEN. BAINA NON-BAIT, BJÖRKEK BERE LANAREN BERRI IZAN ZUEN, ETA HUMAN BEHAVIOUR ABESTIAREN BIDEOA EGITEKO ENKARGUA EMAN ZION. ORAIN, THE KIND REWIND FILMAREKIN DATOR.

Horrela hasi zen Gondryren bigarren jarduera, bideo musikalen zuzendariarena. 1987an, Oui Oui bere taldea izandakoa- rentzat gisa honetako lehen lana egin zuenetik, hamaika bideoklip zuzendu ditu. Gaur egun, berarekin lan egin duten artisten zerrenda ez da nolanahikoa: Rachid Taha, Lenny Kravitz, Björk, Sinnéad O'Connor, The Black Crowes, Massive Attack, Daft Punk, Beck, The Chemical Brothers, The White Stripes...

The Rolling Stonesi ere saldu zien bere irudimenaren zati bat, 1995an *Like a Rolling Stone* bideoa egin zien, eta 1998an *Gimme Shelter*. Lan hau bereziki garrantzitsua da, bertan Gondryk "bala efektua" erabili zuelako lehen aldiz. Ondoren, vod-

ka marka batentzat egindako iragarki batean ere baliatu zuen trikimailu hori. Egia esan, *The Matrix* pelikulak egin zuen eza- gun "bala efektua"; baina, kondairak dienez, Gondry da efektu ikusgarri horren sortzailea. Musika munduan eta publizitatean egindako lan ikusgarriak Michael Gondry. *The work of director* dvd-an dau- de bilduta.

Zinemari gorazarre

Nonbait, formatu laburra txiki gelditu zitzaion zuzendari irudimentsuari, eta 2001ean bere lehen film luzea egin zuen AEBetan, *Human Nature*, Tim Robbins eta Patricia Arquette aktoreekin. Pelikulak ez zituen oso kritika onak izan, baina zeluloi-

de puska hartan dagoeneko agertzen zen Gondryren estetika berezia. Eta are in- portanteagoa dena, lehen aldiz, Charlie Kaufman gidolariarekin lan egin zuen.

Haien zuzen, bien arteko elkarlan berriaz, mende berriko pelikularik orijinal eta bi- kainetakoa sortuko zen, *Eternal sunshine of the spotless mind*. Jim Carrey serio bat protagonista zuela, narrazioaren molde klasikoak apurtu zituzten Gondryk eta Kaufmanek, puzzle berezi eta zirraragarria osatuz. Berehala, kultu pelikula bihurtu zen; hala ere, gidolariak gidoi onenaren Oscar saria jaso zuen.

2006an, Kaufman gabe, Gondryk erakutsi zuen bere irudimena mugagabea dela. Pa- risen girotutako *The science of sleep* fil-



The kind rewind filma.



Bala efektua erabiltzen lehena izan omen zen Gondry. Vodka etxe baten iragarkian ere erabili zuen (irudiotan).



man, Gael Garcia Bernal mundu oniriko eta magiko batean sartu zuen, etengabe ametsa eta errealtatea uztartuz.

Oraingoa, berriz, zinemagintzari maitasun aitormen bitxi batekin datorkigu Michel Gondry, *Be Kind Rewind* filmarekin, eta horretarako aktore talde deigarria elkartu du: Jack Black, Mos Def, Danny Glover, Mia Farrow eta Sigourney Weaver.

Mikek bideoklub bat du, baina bere lagun Jerryk bertan dauden zinta guztiak ezabatu dizkio. Negozioa bizirik mantentzeko, pelikula ezagunen remakeak egiten hasiko dira; *Ghostbusters*, *King Kong*... Haien harridurarako, ideiak egundoko arrakasta izanen du.



TXAKURRA KOPILOTU

Juliette Piesley, 39 urteko emakume ingelesak, George izeneko bere txakurra kopilotu gisa eraman beharko du, autoa konpontzen dioten arte behintzat. Piesleyk autoa martxan jartzeko arazoak zituen, mekanikariari eraman zion autoa. Mekanikaria berehala ohartu zen kontaktuari eragiteko beharrezkoa den txipa falta zela. Txakurra kopilotuaren eserlekuan jarri zuten, eta txiparen seinalea jaso ondoren, kotea martxan jarri zen!

SIBARITA INOZOA

Txinan, Beijing inguruko luxuzko etxeetara sartzen zen gizon bat atxilotu berri dute. Ye, Txina sakonetik Beijingera lan egitera iritsitako etorkina, jakinminez sartzen zen etxe hauetan, eta aberatsen bizitza bertatik bertara probatzen zuen: arropa jantzi, jan, bainua hartu... Etxe bateko jabeak harrapatu zuenean amaitu ziren Yeren abenturak. Poliziak telebista ikusten harrapatu zuen Ye sibirita. Bainatu berria zegoen eta dotore-dotore jantzita, hori bai.



XURGAGAILU BILDUMA

Haur gehienei futbola edo bideojokoak gustatzen zaizkie, baina Kyle Krichbaum 12 urteko mutiko estatubatuarari xurgagailuak gustatzen zaizkio. Kylek hiru urtekin hasi zuen bere bilduma, eta 150 xurgagailu ditu dagoeneko. Ume honen bilduma arraro samarra dela pentsatzen baduzue, zuzen zabilzate. Txarrena zera da, ordea: 150 xurgagailuek ateratzen duten zarata-rengatik dela ezaguna Krichbaum muki-tsua!




**gaztezuloflash zure e-mailean
doan jaso nahi duzu?**

Laster

**Hamabostean behin
informazioa eskura**

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak gaztezulo@gaztezulo.com helbidera

15/1999 lege organikoaren arabera, harpidetzailek gaztezulo-i emandako datuak Datuen Babeserako Agentzian Inskribaturik dagoen fitxategi automatizatu batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidetzailek gaztezulo-ren jardura eta zerbitzuak buruzko informazioa jaso dezan. Datu lagatzaileak, politikiak, irizpideak, zuzenketa, ezeztatzen eta aurkitzea eskubidea, arauak ezartzen duenari jarraituz, Katalina Elizegi 36, behea. 20009 Donostia helbidea, fitxa helbide elektronikoa honetan: harpidetza@gaztezulo.com



AbTx08

t. arabako bertsozale elkarte a. edorta sanz

Bertsomet-ek iragarri zuen bezala, AbTx08 bertso zurrunbiloa Araban sartu zen urtarilaren hamaikan, Gasteizen izan zen sailkapen fasean. Gerora, aurkezpena otsailean izan zen, eta ordutik berebiziko indarra hartu eta erotu egin zen zirimola.

KANPORAKETAK

Laudio

Ipar-ekialdeko haizeak Laudiorantz bidali zuen, eta Aiarako kuadrilla historikoan jokatu zen lehenengo kanporaketa otsailaren 23an, larunbat gauetz. Giro goxo eta alaian berrogeita hamar pertsona ingururekin Basalarrina elkartean afari ederra egin ostean, bertsolariek Lierni Altuna gai-jartzailearen gidaritzapean bertso saioari ekin zioten.

Saioa nahiko erregularra izan zen. Asier Otamendi (Juan Mari Juaristi ordezkatzuz) gelditu zen aurrea 155 punturekin eta beraz, zuzenean pasa zen finalerdietara. Bere atzetik 147 punturekin Iñaki Viñaspre; hirugarren Serapio Lopez 143 punturekin; laugarren, txapelketan lehen aldiz parte hartzen zuen Ander Solozabal gaztea (140,5); bosgarren Izar Mendiguren laudiarra (137,5); eta seigarren Ekaitz Samaniego (137).



Lantziego

Gero hego-mendebaldeko haizea sartu zen bat-batean eta Arabar Errioxara bultzatu zuen zurrunbiloa. Martxoaren 29an Lantziegoko Luis R upategian jokatu zen aurtengo bigarren kanporaketa. Bertan 50 bertsozale ingururen txalo artean beste sei bertsolari aritu ziren lehian Irati Lotina gai-jartzailearen agindupean. Zigor Enbeitak lortu zuen finalerdietarako txartel zuzena, 155 puntu lortuz; bigarren Juan Mari Juaristi gelditu zen Felipe Zelaïetarekin puntutan berdinduta (148,5); ondoren Andere Arriolabengoa (146,5), Alberto Martinez "Betto" (139,5) eta Jagoba Apaolaza (133,5). Bigarren kanporaketa honetan erregulartasuna izan zen nagusi, bertso ale politik izan ziren eta entzuleak gustura egon ziren saio osoan zehar.

Agurain

Hurrengo egunean, martxoaren 1ean, ipar-ekialderantz bultzatu zuen berriz haize ufadak eta Agurainera iritsi zen zurrunbiloa. Sarayola jatetxean jokatu zen hirugarren eta azken kanporaketa. Bertan, berrogeita hamar bertsozale ingururen berotasunean ederki afaldu ostean, Oihane Perea (156 puntu), Ruben Sanchez (156), Manex Agirre (151), Rikardo Gonzalez de Durana (148), Iker Agirre (142,5) eta Beñat Goitia (126,5) bertsolariak aritu ziren Idoia Beitia gai-jartzailearen agindupean. Saioa nahiko ona eta erregularra izan zen eta bertsolarien freskotasunarekin gozatzeko aukera egon zen.

Honela, Arabako zurrunbiloak herrialdea sentiarazten, gozarazten eta astintzen jarraitu zuen, Audio, Lantziego eta Agurainetik pasa ostean, kanporaketetan finalerdietarako sailkatutako hamabi bertsolariak gogor lehiatu zirelarik finale-rako txartela lortzeko asmoz.



FINALA

Ikaragarria izan da zurrunbilo honek hartu duen indarra, herrialde guztian zehar bazterrak nahasten ibili eta gero. Apirilaren Sean Gasteizko Principal antzokian, arratsaldeko bostetan izango den final handian desiratutako txapela nork jantziko irrikitan egongo gara, bai bertsolariak bai bertsozale guztiok ere. Alerta gorria ezarri du Bertsomet-ek, ezin duzue galdu!

**Sentitu,
Gozatu,
Astindu,...!**



FINALERDIAK

Zigoitia

Bide horretan herrialde erdirantz mugitu zen sorgin-haizea martxoaren 9ko igandean, eta Ondategin, Zigoitiko zentro soziokulturean hartu zuen atsedena.

Bostetako kanpakiak jo berritan aretoa bete-bete egina zegoen. Ehun lagun inguru eta txalo zaparrada bertsolariak heldu orduko. Bi ordu eta hamaika algarra izan ziren tartean. Urduritasuna hasieran eta kontzentrazioa saioak aurrera egin ahala.

Manex Agirre izan zen, epaileen erabakiz, finalera zuzenean sailkatzea merezi izan zuena. Saio egonkorra eta borobila bete zuen aramaiorak, freskotasuna eta zuzentasuna nabarmen geratu zirelarik, 326'5 punturekin. Asier Otamendik egin zuen bigarren 322'5 punturekin. Ondoren, hurrenez hurren, Oihane Perea 321, Iñaki Viñasprek 312'5, Serapio Lopezek 306'5 eta Felipe Zelaïetak 283'5 puntu.

Aramaio

Bi orduko saio ederra osatu zuten aramaioko kultur etxean lehiatu ziren bertsolariek. 150 lagun inguru bildu ziren aramaioko kultur etxean. Urduritasuna alde batera utzita, bertso saio erregular eta borobila burutu zuten guztiak. Lierni Altuna gai-jartzailearen esanetara, zortziko handian, zortziko txikian eta hamarreko txikian hiru-na bertso osatu zituzten ofiziokako lanetan.

Txalo zaparradak ugari eta gazteak, gehienak. Lehenengo sailkatu zen 310,5 punturekin Andere Arriolabengoa; 308 punturekin Zigor Enbeitak; 307 punturekin Juan Mari Juaristi; 304 punturekin Ruben Sanchez; 299,5 punturekin Iker Agirre; eta 293,5 punturekin, azkenik, Rikardo Gonzalez de Durana. Puntuak puntu eta epaiak epai, erabakia dago zeinek kantatuko duen apirilaren Sean Gasteizko Principal antzokian jokatu den finalean. Bertan lehiatuko dira txapela jantzi nahian, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre, Zigor Enbeitak eta Oihane Perea. 17:00etan egingo da, eta sarrerak aldeztu aurretik lortzeko, Arabako Bertsozaleen Elkartearen izango da aukera.

JAZZARGIA, JAZZA GASTEIZKO ARGIPEAN

Uda garaiko jazz jaialdietatik haratago jazzak badu zer esanik. Hori uste dute, bederen, Jazzargia elkarteko kideek. Jazz erritmoak Gasteizko txoko gehienetara zabaltzeko asmoz sortu berri da Jazzargia. Jazzaldien ondotik izaten den hutsunea bete eta zale berriak bilatzeko xedez jaio da elkarteak.

t. edurne begiristain **a.** edorta sanz

Jazza adituen eta gutxi batzuen musika den ideia baztertu nahi du Jazzargia-k. Jazza jendarteari hurbildu, udako jaialdi handiez haraindi urte guztirako zale berriak topatu, eta bertako musikarien parte hartzea sustatu. Hori etxek Jazzargia egitasmoaren hiru helburuak. Ekimen aitzindari honen hiru xedeak. Orain arte jazzari eman ez zaizkion lekua eta garrantzia eman nahi dizkio Jazzargiak, baita zuzenean jotzeko aukera gutxi izan duten taldeei euren doinuak zabaltzeko abagunea ere.

Urtarrilaz geroztik kontzertuak antolatzen ari dira astero hiriko bazter askotan, arratsaldeaz eta gauez. Dagoeneko hamar bat tabernarekin lortu dute musika zirkuitua ixtea, baina beste askotara zabaltzeko asmoa ere badute. Alde Zaharreko eta erdiguneko taberneak eskaintzen dituzte kontzertu gehienak orain, baina aurrera begira ez dute baztertzen auzo bakoitzean jazzarentzat txoko bat sortzea. Urtarrilaren 5ean ekin zioten emanaldiak eskaintzeari, eta udara bitartean izango dira martxan. Ekainean jazz ibilbidea eten egingo dute, udako jazzaldiei lekukoa utzita.

Gasteizko tabernetan jazz musika entzunarazteaz gain, musika estilo horri buruz irakurzaletasuna ere sustatu nahi du elkarteak. Hartarako, aldizkaria argitaratu du. Dagoeneko bigarren zenbakia kalean da. Bi hilabetearen behin argitaratuko dute musikarietako leihoa eta jazzarekiko interesa dutenentzako atea den aldizkaria. Musika estilo horrekin lotura izan dezakeen gai orok dauka kabida aldizkarian: elkarriketak, berritasunak, historia artikulua edota iritzi zutabeak. Baina baita, jazzarekin lotura duten beste alorretako gaiak ere, tartean, gastronomia, antzerkia, zinema eta literaturak. Momentuz 10.000 ale kaleratu dituzte.

Uda heldzearekin batera Jazzargiak musika zirkuituan geldituena egingo badu ere, etena ez da edozein modutakoa izango. Izan ere, jazz musikarien artean lehiaketa antolatzen du elkarteak ordurako. Modu horretan, hasberriek euren lehenengo lanak erakusteko aukera izango dute eta profesionalek lan berriak aurkeztu ahal izango dituzte. Saria jasotzearekin batera, New Mood Jazz diskoetxearekin lan bat grabatzeko parada izango dute irabazleek.

Gasteiztik kanporako jauzia ematea da Jazzargiaren ametsa, alegia, Euskal Herriko beste herri batzuetara ekimena zabaltzea. Eta dagoeneko hasi dira beste herrietako musikariek harremanetan jartzen.



Musika zabaldu, eta musikari hasberriei lagundu. Horixe Jazzargiaren helburu behinenak. Hemengo musikarien aldeko apustua egin nahi dute elkarteko kideek, uste baitute oso ondo prestatutako musikariak badirela hemen, baina ez dutela jotzeko leku eta baldintza egokirik. Hala, hainbat tabernarekin eta erakunderekin egindako akordioaren bidez, euskal musikariei aukera eman nahi diete euren doinuak entzun daitezen.



DAVID GOTXIKOA, JAZZARGIA-KO KIDEA:

“Jazza esperientzia dibertigarria eta irudimentsua da”



Jazz uhinak hirian barrena zabaltzeko asmoz sortu duzue Jazzargia. Nola sortu da proiektua?

Sei kidek osatzen dugu taldea, eta udatik at jazz hiritik barrena zabaltzeko asmoarekin eratu dugu Jazzargia. Uztailean batzen da jazz musika guztia, baina gero urtean zehar ez da apenas ezer egoten. Musika emanaldiei urtean barna jarraikortasun bat eman nahi diegu, eta zale berriak sortu nahi ditugu. Izan ere, gure ustez Jazzaldiak ez die tarte handirik uzten hemengo musikariei, eta gure nahia da maila handia duten hemengo musikariei jaramon egitea. Zuzeneko musika emanaldiak eskaintzeko espazio berriak sortzea da gure asmoa, eta hartarako, musika programatzaileen bitartez, jazz musikarekin zirkuitua osatu dugu. Bereziki euskal musikariei eta Gasteizko musikari hasiberriei eman nahi diegu garrantzia, haiek baitira traba gehienak dituztenak zuzeneko kontzertuak emateko.

Jazzaren jarraitzaile berriak sortzea da zuen helburuetako bat.

Hori da gure helburu nagusia. Jazzaren ohiko irudiarekin behin betiko apurtu nahi dugu, adituentzako musika dela dioen klitxe

horrekin amaitu nahi dugu. Jazz musika entzutera animatu nahi dugu jendea. Mitoekin bukatu nahi dugu eta jendeari erakutsi jazz esperientzia dibertigarria eta irudimentsua dela, eta jakingura apur bat baino ez dela behar mundu horretan sartzeko.

Zale berriak lortzeko zer eskaintzen du Jazzargiak?

Programazio iraunkorra, egonkorra eta esku-ragarria. Programa dibulgatzailea eta didaktikoa ari gara prestatzen, berez jazzalea denari baino gehiago, sortu daitezkeen jarraitzaile berriei begiratzen baitiegu. Tokiko musikariari ekonomikoki ere laguntza eman nahi diogu, nahiz eta laguntza hori txikia izan oraindik. Programatzailea eta musikaria saritzea da gure xedea.

Kontzertuak martxan jartzearekin batera, zein beste ekimen abiatu nahi dituzue?

Egia da proiektuak adar asko dituela, alor ugari ikutu nahi dituela. Esparru batzuk jada hasi gara lantzen, baina beste batzuek denbora gehiago behar

izango dute garatu ahal izateko, baita laguntza ekonomiko handiagoa ere. Etorkizunean gure nahia da tokiko musikariei Arabatik kanpo ere emanaldiak eskaintzeko aukera ematea, eta beste herrialde batzuekin kontaktuan jartzea. Norabide horretan pauso txikiak ematen ari gara, erakundeekin eta musika zentroekin harremanetan hasita.

Bi hilabetero aldizkaria argitaratzen ari zarete. Nolakoa da?

Elkartearen ideiak eta filosofia jasota daude bertan. Eduki didaktikoak ditu, euskal musikariei tarte egiten die, eta baita jazzari ukitu garaikideagoa ematen dioten musikariei ere. Horrekin batera, jazzaz ezer gutxi dakien jendeari informazioa ematen saiatzen gara.

Zer moduzko harrera izan du Jazzargiak gasteiztarron artean?

Oso ona. Jende asko horrelako ekimen baten zain zegoen aspalditik eta gogo handiz jaso dute Jazzargia. Harro gaude. Jende askok bat egin nahi du gurekin, laguntza eskaintzeko prest dago, eta erakundeak ere laguntza emateko prest dira. Tabernariak ere izugarri eskertzen dute eskaintzen ari gatzatzen euskari logistikoa, guk nola edo hala agenda osatu bat eskaintzen ari baika-tzaizkie. Gauzak ongi egiten ari garela uste dut, eta jasotako harrerak aurrera jarraitzera animatzen gaitu ■



TREBINU SAGADOTEGIA

EGIN TXOTX!
SAGADOTEGIKO MENUA
ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK
Trebiñuko ASKARTZAN
945244852 / 657736599

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, beheka • 945252631

aralar

PAPRA
TABERNA
Egurditan, asteleneretik ostiralera
**JANTOKI
BEGETARIANO**
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK

**XABIER
AIZPEOLEA**
harategia
Florida Azoka 2 eta 3
Tl. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
Tl. 945 26 78 97

**Jose Luis
GARMENDIA**
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheka - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

ARTEPAN
ariztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guri, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
• Musika eskola
• Ume eta gaztekoentzat
• Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik
behar zaitu

**EAJ
PNV**

**Etxeko zaintzak eta
etxerako zerbitzuak**



ZainBide

Ume zaintza

(Ikastola, haur eskola,
eskolaz kanpoko ekintzak...
Eraman eta jaso)

Goizez, arratsaldez,
gauzez... Orduka

945 23 53 78 info@zainbide.com

Deitu eta aurrekontua eskatu konpromisorik gabe

Dato kalea, 14-16 - 3. A / 01005 Vitoria-Gasteiz

www.zainbide.com



XIBA 2008, HERRI KIROLAK HERRIKO PLAZARA



Talde lana, esfortzua, izerdia, barre algarak... gainean daukagu jada aurtengo herrien arteko jaialdia. Urtez urteko derrigorrezko data bilakatu da Xiba-rena hainbatentzat. Aurtun maiatzaren 17an txandala jantzita Gasteizko Aihotz (Matxete) plazara hurbilduko dira Arabako hainbat talde herri kirolean euren abileziak erakustera.

t. ainhoa arriaga a. edorta sanz

Aurtengoa, topaketen V. edizioa izango da. Eneko Ibañezek bi urte daramatza Xiba Araba egitasmoaren arduradun eta berak ondo azaldu bezala, Xibaren hastapenak heziketa fisikoko eskoletan garatzeko sortu zen egitasmoan kokatu behar dira. Hastapen eta gaur egunari buruz aritu zaigu Eneko.

ENEKO IBAÑEZ, XIBA Araba egitasmoaren arduraduna:

“Ez dugu profesionaltasunera jo nahi, ludikotasunera baizik”

Xiba, arabarrontzako urteroko hitzordu bilakatu da jada. Baina nor dago proiektu honen atzean?

Euskal Herriko Ikastolen konfederazioaren proiektua da Xiba. Zenbait langile gaude horretan: Araban, Endika eta biok gaituzue; Gipuzkoan beste 6 langile eta Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean, beste bina. Lan-talde bakoitza bere lurraldeko proiektu jakinez arduratzen da, batetik; eta bestetik, nazio mailako proiektuetan elkar-lanean aritzen gara.

Herrien arteko txapelketa hau nazio mailan antolatzen da eta bakoitza egun batean izaten da. Apirilaren hasieran Iparraldean tokatzen da, Baigorri eta Saran. Ostean Hernaniren txanda iritsiko da, Gasteiz jarraituko diolarik. Nafarroan hurrengoa, eta azkena Bizkaian. Lurraldeka, gutxi gorabehera lau talde sailkatzen dira, parte-hartzaileen arabera izaten dena. Sailkatutako guztiak finalera dihoaz.

Zein helbururekin sortu zen Xiba?

Ikasleek DBH edo batxilergoa bukatzen dutenean herri kirolei jarraipen bat eman diezaieten sortu zen Xiba. Esaterako, futbol edo saskibaloian aritutako gazte gehienek bazutelako horretarako aukerarik, bai klubetan bai federazioetan, baina herri kirolek ez dute jarraipen hori. Horretarako, aisialdira bideratu nahi zen kontua 16 urtetik goragokoengan eraginez. Gaur egungo helburuak berdintsuak dira, baina bat gehitu diogu, herri kirolak plazara zabaltzea, alegia. Gainera, helburuak lortzen ditugulakoan nago, Araban gutxienez partaidetza oso ona baita.

Zein izaten da topaketen egitaraua? Nola igarotzen da eguna?



Bi edo hiru egun lehenago formazio jardunaldiak egiten ditugu material guztiarekin eta taldeak materiala probatzera, proba bakoitza zelan egin behar den jakitera eta beste taldeak ezagutzera hurbiltzen dira. Egunean bertan taldeekin lauretan geldituko gara Aihotz plazan eta zapi batzuk banatuko zaizkie partaideei taldeka desberdindu daitezten. Ostean, aurkezpena egingo dute desfile bat bailitzan eta, azkenik, ohiko beroketa lanak denon artean.

Gero probak hasiko dira. Hauek multzoka banatzen dira. Alde batetik, jaso eta altxa multzoa daukagu; lasto altxaketa, ingudea eta harria jasotzea. Bestalde, erreleboetan oinarritzen den auzolan multzoa daukagu. Lokotzetan hasten da proba, txingak ondoren, gero zakuak, ostean arrauna eta hasierara berriro ere. Amaitzeko multzokatu gabeko probak: dantza, trontza, musa eta punteria jokoak (boloak, toka, eta xiba). Probak amaituta, dutxatzera eta urtero bezala, afaria egongo da Koldo Mitxelena ikastetxean.

Gasteizko talderen batek irabazi du inoiz txapelketa?

Nazionala ez, nazionala ia beti gipuzkoarrak irabazten dute. Gainera hauek oso prestatuta joan ohi dira probetara. Gasteizen gehienbat jaialdi bat da, eta hori da berez proiektuaren xedea. Jendeak probatzea eta ondo pasatzea. Hemen Gasteizen txandal arrunt batekin etortzen dira partaideak, baina Gipuzkoan eta Bizkaian badaude jantzi profesionalak datozenak, batzuk sasi profesionalak baitira.

Fisikoki prest egotea beharrezkoa al da parte hartzeko?

Bai eta ez. Auzolanean adibidez korrika egin behar denez nekatuta amaitzen dute. Baina gogoratu taldeak 12 lagunek osatzen dutela eta guztiek ez dutela dena egin behar. Adibidez, musean eta dantzan esfortzua minimoa da. Hala ere, zenbait probatan fisikoki ondo egotea bainoago, teknika jakinda eramatea komenigarria da, eta horretarako formazio saioak lagungarriak dira.

Zer egin behar da apuntatzeko?

12na lagunek taldeak osatu beharra dago. Batzuetan, taldekide nahikorik lortu ezinean dabilta eta gu gara taldea osatzen laguntzen diegunak. Formazio egunetan, bakarrik dagoen jendeak taldea aurkitzeko aukera ere izaten du. Izena emateko, eskuorrietako telefono zenbakia eta helbide elektronikoa daude eskura. Azkenik, aipatzea taldeek mistoak izan behar dutela, 16 urte-rik gorako 6na neska eta 6na mutilez osatutakoak.

Zer motako giroa sortzen da Xiba Araba-n?

Normalean jai giro euskalduna sortzen da; guk ez dugu mugatzen, baina apuntatzen den jendea euskalduna izatea da ohikoa.

Lehenengo Xibatik gaur eguneko Xibara zer aldatu da?

Parte-hartzea aldatu da, gero eta jende gehiago apuntatzen baita. Bestalde gure antolaketari dagokionez, igartzen da eskarmentu handiagoa daukagula.

Probarik arrakastatsuen?

Erakargarriena lasto altxaketarena dela esango nuke. Politena edo, desberdina izateagatik, trontza izan daiteke. Auzolanean, erreleboetan, oso ondo pasatzen dute parte-hartzaileek lau lan egiten baitira batera eta taldeen arteko lehia ere sortzen baita.

Eta jendeari egitea gehien kostatzen zaiona?

Harria altxatzea, zalentza barik.

Aurtengo berrikuntzak?

Alde batetik, arestian esan legez, leku aldaketa. Bestetik, taldeen kopuruari dagokionean, orain arte izena emateko mugarik ez zegoen; aurtén, 12 talde parte-hartzailetan jarri dugu muga. Izan ere, talde gehiegi badira, jaialdiaren garapenean oztipoa izan daitezke, denbora luzatu eta jendeak gehiago itxaron behar izaten baitu. Proben funtzionamenduari begira, honakoak aurreikusten ditugu: altxatu behar den



harriaren pisua jaistea, baita erreleboetan eman beharreko itzuli kopurua ere. Ez dugu profesionaltasunera jo nahi, ludikotasunera baizik, horregatik parte hartzen dutenentzat errazagoa jartzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Aurtengo azken berrikuntza, ikusleriarengan pentsatuz, proba guztiak batera egin beharrean, multzoka egitea daukagu buruan. Horrela, lehen begiratuan ez dute guttia ikusita izango eta luzaroan mantentzeko estrategia izan liteke.

Nola animatuko zenuke jendea aurtengo Xibarako?

Jai giroan parte hartzera animatuz, euskal kulturaren jaia dela gogoraraziz. Probak politikak dira, lehiaketa bat da. Helburu nagusia ez da irabaztea, ondo pasatzea baizik. Amaieran opari moduan afaria antolatzen da, barre batzuk egiteko aukera polita. Beraz, ondo pasatu nahi duena anima dadila! ■

DANZA EL MUNDO MUNDUA DANTZAN

Arabesco elkarte kulturalak bere lehen urtebetetzea ospatu behar du aurten. Dagoeneko festa antolaturik dago eta denak zaudete gonbidatuta apirilaren 4an eskainiko duten Mundua Dantzan izeneko ikuskizunera.

t. ane pedruzo a. edorta sanz

Cristina Sampedro, sabel-dantzari moduan Kahina bezala ezagunagoa, elkar-teko presidente eta bertako irakaslea da. Berarekin mendebalde eta ekialdea hurbiltzea xede duen elkarteaz eta apirilean burutuko duten ikuskizunaz aritu gara.

ARABESCO, KULTURANIZTASUNA OINARRI

Dantza japoniarrak, buhamearrak, tribalak, flamenkoa, indiarak, Balkanetakoak, sabel dantza, Tai jia, babes pertsonala... Arabescok eskaintako ekin-tzen zerrenda luzea da. Gainera elkar-teko egoitzan zehar barreiaturik dauden itzalkin, papiro, hieroglifiko, ezpata, haizemaile, kuxin marokoar, belo, kandel-ek eta beste hainbat objektu munduan zehar bidaiatzera gonbidatzen dute.

Gezurrezko suge bat ere badago paretan zintzilik Cristina eta elkar-teko beste bazkide baten arteko "borroka" baten ondorio. Izan ere, Cristinak benetako suge bat nahi zuen baina azkenean panpinarekin eta Australiako herensuge bizardun batekin konformatu behar izan du. Atila da narrasti xelebrearen izena; ez da hunoen erregea baina bai Arabescoko printzesa eta bertan jorratzen diren dantza guztien lehen lerroko ikuslea.

Multikulturalitatea eta zehazkiago munduko dantzak sustatzeko helburuare-kin jaio zen gaur egun ehun bazkide-ekin gora dauzkan elkarte hau. "4 urte nitue-netik dantzatzeko dut eta ekialdekoa den guztiak izugarri erakartzen nau". Honela mintzatzen da, Mundua Dantzan proiektuaren sustatzaile nagusiene-takoa den Cristina, Kahina lagunentzat.

MUNDUA DANTZAN, EZUSTEKOEN KUTXA ZABALTZEN

Arabesco-ko bazter guztietara heltzen da Kahinak esku artean duen mendaz-ko tearen usain goxoa. Egoera ezin hobea da Mundua Dantzan egitasmoaren sekretu guztiak ezagutzeko...

"Bazen behin saltzaile ibiltari bat. Bere gurdian milaka objektu



**"DANTZAK GIZAKIA-
REKIN BATERA GARA-
TU DIRA, HISTORIAU-
RREAN ERE GURE
ARBASOAK DANTZA-
RIAK ZIREN"**



**"GASTEIZEN ARTISTA
GARRANTZITSUAK
DAUZKAGU ETA EZ
ZAIE BEHAR DEN
GARRANTZIA EMATEN.
MOTA HONETAKO
IKUSKIZUNEKIN
AURRERAPAUSSOAK
EMATEN DITUGU"**

zahar eta baliogabekoak zeramatzan. Eskarmentu handiko emakumea zenez eta erretorikaren ezagutza izugarria zuenez nahi zuen guztia saltzeko gai zen edozein tokitan zein egoeratan. Egun batean munduari bira ematea erabaki zuen. Bere jaioterritik abiarazi zen, Gasteizetik alegia. Donnayren lagunen abesbatzak girotu zuen bere agurra. Lehenik eta behin Europako erdigunerantz joatea erabaki zuen. Han Balkanetako ijitoen dantzekin topatu zuen gure protagonista. Dantza judutarrek ere lagungarri izan zitzaizkion hainbat zirtzileria saltzeko. Haizemailearen laguntzaz egindako Tai jia topatuko zuen Asian, baita dantza japoniarrak eta ekialdeko dantza eta dantza indiarren arteko fusioa ere. Afrikara salto egitean Egiptoko doinuekin apaindu zituen bere salmentak. Espainian flamenkoa izan zen bere aliatua. Azkenik, Euskal Herrian euskal dantzez gozatzeko aukera izan zuen. Dagoeneko bere denda hutsik zegoen, dena saltzea lortu zuen eta etxean zegoen berriz ere".

Honakoa da Mundua Dantzan proiektuak aurkeztu nahi duen istorioa. Munduko dantza desberdinen aurkezpen interesgarri eta koloreduna alegia.

Ikusleek saltzaile honen gurdira hurbiltzeko aukera izango dute eta berarekin batera bidaiatzen hasi.

MUNDUKO DANTZAK, EZEZAGUNA ERAKARGARRI

Dantza bakoitzak ezaugarri zehatz eta bereizgarriak dauzka. "Egiptoko dantzetan mugimenduak oso sentsualak dira, femeninoak, baina aldi berean indar handikoak ere. Tai jiari dagokionez, borroka-arte bat izan arren duen harmoniagatik dantza bat ematen du". Kahinak munduko dantzen gainean duen ikuspuntua azaldu digu apirileko emanaldian eskainiko dena hurbiltzeko asmoarekin. Sabel dantzari dagokionez eta esparru honetan profesionala den legez, Cristinak bere aburuz gaizki-ulertu bat dena argi utzi nahi du: "Sabel dantza sentsuala da baina ez du sexualitatea helburu, inondik ere".

Argibide gehiago ere eskaini dizkigu Cristinak. "Dantza japoniarrak oso leunak dira, Europa erdialdekoak ez bezala, azken hauek izaera handikoak baitira". Bukatzeko, Kahinak auresku bat ikusten duen bakoitzean "hunkitzen" dela aitortu digu■

mundua dantzan egitasmoa

tokia: beñat etxepare aretoa (gasteizko iparralde gizarte etxea) [300 lagunentzako tokia]

data: apirilak 4, 19:30

sarrerak: 6 euro

(antzokiko leihatilan eta arabescon -s. ignazio loiolakoaren kalea, 15-)

info +: 637463459

www.wadhoo.com/arabescoasc


www.portaloriental.com



TREBIÑU SAGARDOTEGIAN TXOTX!

Sagardoaren kultura jatorriz gipuzkoarra bada ere, gaur egun ez dago zertan Arabatik irten sagardotegi batera joan nahi izatekotan. Izan ere, Aramaion, Ozetan... eta orain Trebiñun ere arabarrok txotx egiteko aukera baitugu.

t. ane pedruzo
a. edorta sanz



trebiñu sagardotegia

iparraldeko kalea, 5
askartza (trebiñu-araba)

sagardotegi menua
[25 euro]

bakailao nahaskia; bakailaoa
piperrekin; txuletoia; gazta, intxaurrek
eta irasagarra; kafea; etxeko orujoa

asteburuetan
(bai bazkariak bai afariak)
aurretik erreserba egitea
beharrezkoa da:

kmarkinez@euskalnet.net
945244852 / 657736599

KOLDO MARKINEZ. 49 URTE. ASKARTZA (TREBIÑU)

LIBURUAK BURUAN ETA SAGARDOA BIHOTZEAN

Liburuzain diharduen arren, Koldo Markinezek betidanik izan du landa eremuarekiko zaletasuna. Hori dela eta, duela hamalau urte gutxi gorabehera, 2.500 sagarrondo landatu zituen Askartza herrian daukan baserrian. Horrela jaio zen Trebiñu sagardoa. Nahiz eta botila gutxi betetzeko ekoizpena izan, sagar zuku honek bere lekutxo egitea lortu du Gasteiz eta inguruko herrietan.

Honez gain, Koldoren etxea pixkanaka sagardotegi itxura hartuz joan da. Izan ere, baserriko sukaldean lagunarteko bazkari eta afariak gero eta ugariagoak izaten hasi ziren, txuletoia, bakailaoa, gazta, intxaurrak eta, noski, sagardoa oinarri. Topaketa horien arrakastaren ondorioz eta semeek eta lagunek animaturik, sagardotegi bat abian jartzea erabaki zuten Koldok eta bere bikotekide Marianek.

Trebiñu sagardotegia, beraz, jada ez da burutazio eta amets soila, martxoaren 7an lehen aldiz bere ateak ireki eta dastatu daitekeen errealitate goxoa baizik. Urte askotarako!

Nola ausartu zinen honelako abentura batean murgiltzera?

Behin nire buruari galdetu nion, eta zergatik ez? Trebiñu existitzen da, aizu, sagardotegi eta guzti! Gertatu izan zait inoiz norbaitek galdetu izana ea Trebiñu aintzira bat ote zen, mapan horrela interpretaturik... Zonalde honetan garagarra eta garia baino gauza gehiago ere badaudela ohar dadila mundu osoa!

Trebiñu sagardotegia hainbat urtetako lanaren fruitua da, nola deskribatuko zenuke?

Antzina baserriko ukuilua zena gaur egun sagardotegi modernoa bilakatu da. Altxaruzko zazpi kupela dauzkagu eta 40 pertsonarentzako tokia. Leku atsegina da, jendea etxean balego bezala sentiarazteko modukoa. Tximinia eta sagardoarekin bertan giroa berotzea erraza izango dela uste dut.

Tradizioari jarraituz, zutik eta platerik gabe jan beharko da txuletoia?

Sakonki hausnartu ondoren aulkiak eta platerak jartzea erabaki dugu. Jendea gero eta patxadazaleagoa da eta erosotasuna bilatzen du. Egia esan, hogeituroko gazte bati bost axola zaio eserita, zutik, platerarekin, eskuekin... jan, baina behin adin batera helduta zorrotzagoak gara...

“PROIEKTU HAU AUZOLAN BAT DELA ESAN DAITEKE, FAMILIA, LAGUNAK... DENON ARTEAN ERAIKI DUGU TREBIÑU SAGARDOTEGIA”

Nola lortzen da sagardorik onena?

Frantsesen "le terroir" espresioaz baliatuko naiz galdera honi erantzuteko, alegia, lur eremu bakoitzak bere berezitasuna dauka eta produktuak hazi diren luraren arabera dira. Gurea Trebiñuko sagardoa da, bertako lurra baldintzatzen duelarik bere kalitatea. Halere, ikerketa txiki bat egin dudala aitortu behar dut. Izan ere, toki asko bisitatu ditugu sagardo desberdinak frogatzeko, Normandia, Asturias, Britainia... Leku bakoitzean sagar mota jakin batzuk erabiltzen dituzte. Nik barietate batzuk aukeratu nituen bere garaian eta hoberenekin gelditu naiz. Baina ez pentsa esango dizuedanik zer sagar mota erabiltzen dudan! Hori sekretu profesionala da! Kar-kar...

Sagardotegiaz bestaldean egotea, alegia sutegietan, harrikoa egiten, zerbitzatzen..., ez al zaizue zaila suertatuko?

Ez pentsa! Sagardotegia txikia denez bezeroekin harremana estua izango delakoan gaude, gainera hori da gure asmoa, giro hurbila lortzea une oro. Seguruenik behin baino gehiagotan denok elkarrekin afaltzen bukatu dugu! Beno, hobe ezetz, izugarri lodituko naiz bestela!



Nola egingo diozue aurre Gipuzkoako sagardotegiek egiten dizueten lehiari?

Gureak ez dauka Gipuzkoako sagardotegiekin zerikusirik eta hori lortzea ez da inoiz gure asmoa izan. Gainera sagardotegiekin baino gehiago sagardo botilekin dugu arazorik handiena. Izan ere, euskal gobernuak diru laguntzak ematen ditu botilen kudeaketarako eta gipuzkoarrek bere egin dute botilen merkatua. Guk sekulakoak egin behar izan ditugu botilak lortu ahal izateko, gipuzkoarrei baimena eskatu eta guzti! Eta, jakina, inongo laguntzarik gabe...

“GURE SAGARDOA ETXEKO DA % 100EAN, HAZIETATIK KUPELETARAINO, PROZESU OSOA ASKARTZAN GAUZATZEN DA ETA MIMO HANDIZ GAINERA”

Zer sentitzen da zuk zeuk egindako sagardoa edaten dela ikustean?

Sinestezina da... Pasa den urteko Araba Euskaraz-en, adibidez, gure sagardoa eskaintzen zuten eta ezin dezaket hitzekin adierazi nire albokoak edaten ikustean sentitu nuen poza! Lehen aldiz zuku-makina batekin egindako eta nik bakarrik edateko gai nintzen sagardo hura gaur egun edangarria eta ona da! Sekulako sentsazioa da! Sari bat jasotzearen parekoa! ■



EUSKARAREN BASOA

Aurrekoan aukera izan genuen Koldo Izagirreraren hitz jario aparta entzuteko (*Greenwich ez da meridiano bakarra*, aukera baduzue entzun), eta beste gauza interesgarri askoren artean, "independencia" esateko, euskarazko hitza independentzia zela esan zuen, eta ez beste norbaitek borondate onez bada ere esandako itzulpena, "askatasuna".

Geure geurea duguna ere ezkutatze joera dugu euskaldunok, askotan kanpo eder etxe kakatsu batzuk baino ez gara, geure kulturari eta hizkuntzari zor diogun errespetua ahaztuta, beti kanpokoa hobe dela pentsatuta, baina esaerak dioen moduan kanpoko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau.

Zenbat aldiz ez ote zaigu gertatu hau, ezta?

Baina ez nuen horretaz aritu nahi, arrazoi hau entzun gabea nuen eta oso garrantzitsua iruditzen zait, independentzia hitza ahotan hartzeko, orain benetan azaldu nahi dizuedana adierazteko, idatzi honi jarritako izenak ere horixe duelako bere baitan.

Etorkizuna euskaraz, euskaraz... independentzia.

Guk euskaraz etorkizuna nahi dugunok, euskararen basoa osatzea nahi dugu bere zuhaitz guztiekin, guztion beharra baitago horretarako, guztiok gara beharrezko euskararen basoa osatzeko.

Euskararen basoan sartuta bada, Angel Rekalderi lapurtu dizkiogu bere 'Sombras del alba' liburutik ondorengo hitzok, berak liburuan, aitona batek pertsonekin egiten duen konparaketa ederra ikusteko eta denok gure norbanakotasunean zer garen pentsa dezagun.

Zuhaitz mota asko daudela dio aitonak. Hemengo basoak bestelakoak dira. Zuhaitz bakoitzak badu bere izaera eta hazten den lurrera egokitzen da. Bere lurrera egiten diren herriak bezala.

Herri honetako jendea pagoa bezalakoa da. Pagoa, pertsonaia berezia da. Bidaiaariak harritzen dituen oihan arraroa osatzen du, beste eskualde batzuetatik datozenak. Izutu egiten ditu gerizpeztaketak itxurak... Baina oihan batua da, patxadatsua eta goxoa ezagutzen dutenekin...

Ez da kasualitatea pagadiak ipuin eta kondairen eszenatoki izana...

Pagoa izaki goxoa da...

Pagoak bere burua babesten du eta bere sustraiak dauden lurra ere zaintzen du...

Bere sustrai indartsuak lur gogorretan zabaltzen dira... hotzari eta beroari aurre eginez...

...pagoa apala da... bere bihotza pasta onekoa da... zahar itxurakoa.

Pagoa gure herria bezalakoa da. Zaharra baina indartsua eta bizia, mendeen lekuko.

Eta gazteak esaten dio halako batean, haritza dela euskaldunok ordezkatzeko gaituen zuhaitza. Eta agureak onartu arren esaten dio, baietz baina horrek ordezkatzeko duena politika dela, tituluak, ohoreak, ospakizunak, eta agurea euskal jendea buruz mintzo da. Desberdintasuna denbora eta adinaren modukoa da.

Haritza harroa dela dio, aristokratikoa, eta pagoa herritar xumeak bezalakoa, eta haritza boterea.

Hariztiak euren inguruan bestelako sasiei egiten die leku, aberastutako herri feudala bailitzan. Jauntxoa da, ez jendearena.

Martxoaren leian, Gasteizen euskararen basoa sortzen lagunduko duen zazpi pago-landare landatu zituzten hainbatek, ez da ez hemen hazten euskararen basoa, aspaldi hasita dago, baina baso hori jantzi nahi dugu etorkizunean ere kimu berriak eman ditzan eta bere lurraldea pagoak egiten duen moduan zaindu eta maitatu dezan.

Pago-landare bakoitzari ardura bat eman diogu, hezkuntza, osasun arloa, justizia, helduen euskalduntzea, komunikabideak, ofizialtasuna eta lurraldetasuna...

Arlo hauek guztiak sustatu eta lagundu beharra dago oraindik ere asko baitauek egiteko, baina gogo behar horretarako, gogo ona noski.

Aurrerantzean ere hortxe egongo dira pagoak eta denon lana izango

da zaintzea, eta euskararen normalizazioa burura eramateko baldintza egokiak sortu eta urratsak eman behar ditugu eta independentziaz ... lortuko dugu.

Euskararen basoa aberasteko zuen guztion eskura jarri dugu... ■

<http://euskararenbasoa.nireblog.com/>



ARMENTIA IKASTOLA

HURBILEUSKALDUNAP
ARTAIDETZASOZIALAH
URBILGASTEIZTARRAE
LEANITZAHURBILGIZA
BALOREAKLAGUNTZA
HURBILIRAKASKUNTZA
INTEGRALABERRIKUNT
ZAHURBILHOBKUNTZ
ABERDINTASUNAHURB
ILKULTURAKIROLA



15 URTE GASTEIZEN

Ikastolako ekintzak

Apirilak 14-17
Eskolaz kanpoko
ekintza
eta kirol taldeen saioak
Armentxo

Maiatzak 18
Mendi irteera

Maiatzak 24
IKASTOLAREN EGUNA

Saio irekiak

Apirilak 18
Birusak erasoan
(Txotxongiloak)
Toni La Sal

Maiatzak 9
Bertso trama
Julen Zulaika eta
Bertxilika
Armentia Ikastolako
Bertso Eskola

Maiatzak 16
Apaizac obeto
(hitzaldi eta ikus-entzunezkoak)
Jon Maia

Maiatzak 30
Tanzania bizikletaz
(Hitzaldi eta diaporama)
Koldo Zubizarreta

Ekintza irekia

Ekainak 8
BTT-KROS LASTERKETA
Armentia basoan

ARMENTIA IKASTOLA

Gaztela Ataria 101
01007 Gasteiz
armentia@ikastola.net




ERROTA HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK




Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo
Jantziak

San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitez !!
Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

softwarea

Sage Logic Control

Kudea Softwarea

Fakturazioa eta biltegia

Proiektuen kudeaketa

Garraio enpresei zuzendua

Komertzio eta profesionalak

Neurrira egindakoa

softwarea erabilgarria

soluzioak
kudea



Los Olmos etorbidea, 1 A eraikina, 101. bulegoa
01013 Vitoria-Gasteiz
tel. 945 267 289 = faxe 945 267 416
www.kudea.net = info@kudea.net

irudia

Diseinu Grafikoa

Web Diseinua

Publizitatea

Internet

irudi on baten indarra



m. iñigo sarasola



zutabea

Trebiñu ez da Araba

t. erlantz urtasun antzano. historialaria



Historia zutabe honetan lantzeko banuen hainbat gai, erraterako "abertzale" omen den egunkari batean, martxoan eta "efemeride" sailean, harriturik irakurri ahal izan nuen: "En 1976 cinco trabajadores murieron en Vitoria debido a un enfrentamiento que se produjo entre huelguistas y fuerzas del orden público". Edota, umeen aurrematrikulazio garaia zelarik, gure euskararen nondik norakoa aztertzen zuen kazetari ezagun baten hausnarketa mamitsua: "Eso sí, contra el proletariado, leña al mono hasta que hable inglés".

Baina bertzelako albistea iritsi zitzaidan, ustekabean, jadanik gaztea ez naizela oroitarazteko edo. Javi Ruiz hilik agertu zen mendian. Ez du ezagutu Uda-Trebiñu Araban.

Aspaldian hitz egin genuen, bera eta biok, Uda-Trebiñuko historiaz. Biondako begibistan baitzen Uda-Trebiñu ez zela inoiz Araba izan. Lehenik eta, Nafarroa. Gero, konkista militar krudela, sarraski odoltsua medio, Gaztelako esklabu.

Eta, javik irrifartsu, horrela aitortzen zidan, "no, si al final, al paso que vamos, ya que no nos hacen ningún caso, tendremos

que reivindicar la reintegración en Nafarroa en vez de en Araba". Are gehiago, txantxa hori zabaldu zuen "abenduaren 28" data batean, prentsa artikulua moduan, hots, Trebiñu Nafarroan nahi zuela. Zer algarak egin genituen bai Araba bai Burgosko agintariek, era ezin traketsagoan, benetan ari ginela sinetsi zutenean!

Baina orain ez zara. Eta berriz ere oroitarazi behar dugu 2008ko Uda-Trebiñu Gaztela dela zigor militar baten ondorioz, 1200. urtean erresistentzia burutu zuelakotz. Baita Gaztelak bertan jarriko jauntto gaiztoaren ondorengoez, Nafarroaren aurka 1512an, protagonismo handia ukan zutela ere. Baina orain ez zara. Horregatik, inoiz baino gehiago, Nafarroako bihotza izanik, zu, Javi Ruiz zena, zu bihurtu zara bertze arrazoin aldarrikatzeko: Uda Araba da! ■

EZ ADIORIK,

JAVI!



proposamenak

cd

'mara'

igor arzuaga
politburo recording fiasco-08
www.myspace.com/politburorecordingfiasco



mara-n, igor arzuaga musikariak, pianoa eta ahotsa erabilita, 10 abesti lantzen ditu non irudizko bidaiak, amodioa, drogak, une txarretako adiskideak, bakardadea eta ametsei buruzko istorioak aurkitu ditzakegun. gogoeta sakonetara bidaia bizia; tom waits, nick cave edota yann tiersen-en tradizioari jarraiki argiak eta itzalak tartekatuz. [7 euro]

politburo recording fiasco uhinak irratiko la lista negra irratsaiotik sortzen da 2006. urtean. gustuko musikariei laguntzen saiatzen den zigilu autogestionatua da; horregatik, edozein proposamen jasotzera zabalik daude.

liburua

gezurra ari du

lorea agirre
hainbat argitaletxe-07



gezurra badirudi ere, demokrazia garaian eta xxi. mendean egunkari bat itxi dute. euskaldunon egunkaria-ren itxieraren kronika da liburu honen ardatza. argazki ugari eta oso kalitate onekoak daude, oso adierazgarriak gainera.

liburu hau kaleratzeko argitaletxe batzuk elkartu ziren: aise, alberdania, elkar, erein, elhuyar, pamiela, susa, ttarttalo eta txalaparta. hunkigarria. merezi du.

zinema

'lo mejor de mí'

espainia-07 / roser aguilar

raquelek irratian lan egiten du eta, bere ahots eztiarekin, lo egin ezin dutenei konpainia egiten die. emakume eskuzabala da eta bizitza ezin hobeki antolatua du. baina, ezustean, aldaketa dramatikoak izango du.



literatura dosi txikitan

EZ IRAKURRI

t. mikel ayerbe



Liburu-denda batean ikusi dut Meettok argitaletxeak kaleratu berri duen azken liburua: *Irakurri*. Nola ez, irakurtzeari buruzko hamaika euskal idazlek idatziriko hamaika idazki literario biltzen dira bertan. Idazleen artean, Uxue Apaolaza, Eider Rodriguez, Iban Zaldia, Harkaitz Cano eta Anjel Lertxundi, besteak beste.

Eta liburua irakurtzen hasi aurretik liburuari buruz idazteari ekin diot. Badakidalako *Irakurri* liburua irakurriko dudala, eta agian, irakurritako liburuari buruz idatzi ere egingo dudala.

Irakurtzea ez baita ezinbestekoa. Ez da derrigorrezkoa. Idaztea gutxiago. Eta irakurritakoari buruz idaztea are gutxiago (ez dut ulertzen zergatik tematzen garen hainbeste kritikari eta zutabegileak, benetan...). Azken batean, irakurtzea ekintza bat baita, harrikoa edo kaka egitea bezalakoa. Baina kaka egitea beharrezkoa den neurrian, irakurtzea ez litzateke denbora-pasa bat besterik. Sudoku bat, nahi bada.

Atxagak behin adierazi zuen irakurtzea jarrera baten ondorioa dela. Jarrera bat baino gehiago, bizitzaren aurrean hartutako jokabide bat. Hala izango da zenbaitentzat. Beste batzuentzat, denbora alferrik galtzeko modu bat dela ezin uka.

Eta ez dut zutabe hau amaitu nahi, irakurtzeari buruz irakurri dudana artikulua bikain baten aipua egin gabe. Jon Alonso da egilea eta www.bazka.info atarian aurkitu dezakezue. Horrela amaitzen da testua: "Irakurtzea da... berezkoa, ona, txarra, baldintzatua, jardun mailakotua, metafisikoa, filosofikoa, boterea, subertsiboa, sortzailea, interpretaezina, libre, alienantea, absurdua, argazkiak begiratzea bezalakoa, justifikagaitza, dibertigarria, aberasgarria... eta beste mila gauza. Humanook egiten dugun ia dena bezala".

Baina noski, zertaz ari den jakiteko, ezinbestekoa, beharrezkoa eta ia derrigorra da Alonsoren "Irakurtzea, edo ez" artikulua irakurtzea ■

geusex@emaize.com


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitez eta bidali hona zure galderak:

geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.



emaize sexologia zentroa

gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Kaixo, umetoki minbizia ekiditeko txerto bat dagoela entzun dut. 20 urte ditut eta sexu harremanak izaten ditut, txertoa jar dezaket? Ezetz entzun dut.

Aipatzen duzun txertoa ez da berez umetoki minbizia ekiditeko, honekin harremanduriko Giza Papilomaren Birusaren mota batzuen eragina saihesteko baizik.

Txertoaren salneurria ia 500 eurokoa da (Osakidetzak neska gazteagoei dohainik jartzen die) eta printzipioz edozein emakumek jar dezake, baina baliteke genital kontaktuaren bidez transmititutako birus honen motaren bat gugan egotea, nahiz eta inolako sintomarik izan ez, eta kasu horretan eragina baxuagoa litzateke.

Txertoa jartzeko erabakia hartu baino lehen, zure medikuari behar duzun informazio guztia eskaiozu.



32 urteko mutila naiz. Azkenaldian bitan mutil batekin sexu harremanak ditudala amestu dut. Beti neskak izan ditut gustuko

eta hala da gaur egun ere. Amets hauek homosexuala naizela esan nahi dute eta ez naiz konturatu? Nahastuta nago.

Ametsetan agertzen denak zerikusi gutxi izaten du errealitatearekin, nahiz eta batzuetan gure desio eta beldurrak hauen bidez bideratu. Amets askori ez diegu kasurik egiten, baina gure sexualitatearekin harremandurik daudenean, desoreka sor dezakete eta asmagaitzak diren zergatien bila has gaitezke.

Esna zaudenean ze lagunekiko nabari duzu desioa? Desio horiei jarraitu, horiek baitira zure jokaera bultzatzen dutenak.

Ametsak, gure ongizate mentalerako garrantzitsuak dira, baina ametsak dira, besterik ez.

errezeta

BARRASKILO PARMENTIERRA ETA ZIZA URINA

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Barraskiloak (kg. 1)
- Patata (1/2 kg.)
- Haragi salda, 2 litro
- Garaiko zizak, 150 gramo
- 100 gr. *Boletus* deshidratatu



diocesanas-mendizorrotza
ostalaritza eskola

- Metodo tradizionalaren arabera irakiten dira barraskiloak eta ondoren haragia ateratzen da, aparte erreserbatzeko.
- Patata purea egiten da onddoak egosteko erabili den saldarekin eta patatak iragazten dira, salda erreserbatuz.
- Onddo eta patatekin purea egiten da, plateran barraskilo gisatuen azpian ipintzeko.
- *Tahoon* cress-arekin platera apaintzen da, freskura eta baso zaporea ematen diolarik, eta ondoren onddo saltsarekin batera zerbitzatzen da■



conletras.abril 08

apirilean.hizk

apirilak 16
JUAN JOSÉ MILLÁS

apirilak 17
RAÚL ARGEMÍ
ALEJANDRO M. GALLO
JAVIER OTAOLA

Literatura policiaca de hoy
Mesa redonda / mahai ingurua

apirilak 18
CLARA SÁNCHEZ

apirilak 21
UXUE APAOLAZA
EIDER RODRIGUEZ
IBAN ZALDUA

Haragiaren gezurak, gezurren haragia
Mesa redonda / mahai ingurua (euskaraz)

apirilak 22
JON ALONSO (euskaraz)

"Koherentzia literarioa eta itzulpengintza"

apirilak 23
AJO+MASTRETTA
S striptease cardiovascular

Palacio de Villa Suso / Goiuri Jauregia Hora / Ordua: 20:00

apirilak 18-19

Biblio-chill 11:00-20:00.
Entrada libre. Sarrera doan.
Jaime de la Plaza de España.
Espainia plazako jaiman.

Historias para hombres y mujeres buenos
Jaime de la Plaza de España. Espainia plazako jaiman.
Pases nocturnos/gaueko saioak (+14 años/urte)
21:00; 22:30; 24:00. Precio/prezioa: 2€.

Venta de entradas: Palacio de Villa Suso. Del 14 al 17 de abril. De 12:00 a 14:00 y de 19:00 a 21:00
Sarreraren salmenta: Goiuri Jauregia. Apirilaren 14tik 17ra. 12:00-14:00 eta 19:00-21:00



Antolatzailea:



Laguntzailea:

